

CAMPO / ARLOA

Ekhiñe Anuncibay Gurruchaga

**ARLO FONETIKO-
FONOLOGIKOAREN AZTERKETA**

TFG/GBL 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Infantil
/
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ARLO FONETIKO-FONOLOGIKOAREN
AZTERKETA

Ekhiñe Anuncibay Gurruchaga

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Ekhiñe Anuncibay Gurruchaga

Izenburua / Título

Arlo fonetiko-fonologikoaren azterketa

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director

Patxi Salaberri

Saila / Departamento

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saila / Departamento de Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicuma daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren zehazten ez duenez, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat finkatzeko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua zati teorikoan nabarmentzen da, hizkuntzaren garapenaz eta komunikazioaz hitz egiten denean. Haur literatura, hizkuntza eta psikologia irakasgaiak hizkuntzaren garapena haurrengan nola ematen den eta nola komunikatzen garen ulertzeko baliagarriak izan zaizkit.

Didaktika eta diziplinako modulua zati praktikokoan garatzen da, egindako behaketa pertsonalean eta proposamenetan. Zati honek lana osatzen du eta ondorioak ateratzeko balio du.

Halaber, Practicum modulua behaketa pertsonalean garatzen da eta lana osatzeko, baieztapenak egiteko eta ondorioak ateratzeko balio du.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Antecedentes, objetivos y cuestiones”, “Proposiciones para trabajar la dislalia” eta “Conclusiones” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Hizkuntzaren fonetika eta fonologia, hizkuntzaren ahoskerari dagozkion alderdiak dira. Gizakiok hizketa ekoiztearekin eta hautematearekin du zerikusia. Fonetikan hotsen artikulazioa eta akustika aztertzen da, eta fonologian berriz, esanahi aldaketak sortzen dituzten hotsen sistemak eta sistemaren barruko arauak. Haurren hizkuntzaren garapena sinpletasunetik konplexutasunera igarotzen da eta imitazioa erabiltzen dute baliabide gisa. Euskaldun berriek arazo gehienek kontsonante txistukariak ahoskatzerakoan izaten dituzte. Ezagutzen garapenean eta honen eskurapenean, komunikazioa ezinbestekoa da eta irakasleak honetan leku garrantzitsua betetzen du, ikasleen eredu bezala. Jolasak ere garrantzi berezia du haurren garapen faktore gisa. Dislalia da haur hezkuntzan gertatzen den hizkuntza arazo arruntena eta ohikoena. Normalean hiru eta bost urte bitartean azaltzen da eta hitzen ahoskatze arazoan datza. Arazo gehienak, hitz egiteko erabiltzen diren organoen nahasteengatik gertatzen dira.

Hitz gakoak: fonetika eta fonologia, haur hizkera, hitzen ahoskera, hizkuntzaren garapena, ahoskeraren arazoak.

Resumen

La fonética y fonología del lenguaje se refieren a aspectos de la pronunciación de la lengua. Tienen que ver con la producción y percepción del lenguaje del ser humano. La fonética analiza la articulación y acústica de los sonidos mientras que la fonología se ha ocupado tradicionalmente de las variaciones de significado que crean los sistemas y los modelos de sistemas en los sonidos. El desarrollo en el lenguaje de los niños transcurre desde la simplicidad a la complejidad, y los niños usan la imitación como un gran recurso de aprendizaje. La mayor parte de los nuevos *vascoparlantes*, muestran ciertas dificultades en pronunciar las consonantes sibilantes, y el profesor/a juega un papel esencial en el proceso de aprendizaje como referencia y modelo para sus estudiantes. Los juegos son también muy significativos como factor del desarrollo de los niños. La dislalia, es decir, la discapacidad específica que se refiere a la dificultad de articular palabras, es una de los problemas que se dan en la educación infantil. Esta condición del lenguaje afecta habitualmente a niños entre tres y cinco años de edad.

La mayoría de los problemas surgen cuando los órganos de un sujeto no realizan el movimiento concreto adecuado para producir un determinado sonido.

Palabras clave: fonética y fonología, habla del niño, pronunciación de las palabras, desarrollo de la lengua, dificultades de la pronunciación.

Abstract

Phonetics and phonology of the language relate to aspects of the pronunciation of the language. They have to do with production and perception of language by human beings. The phonetic analyzes articulation and acoustic of sounds, while phonology has traditionally dealt with the variations of meaning that create systems and system models in the sounds. The language development of children moves from simplicity to complexity, and children use imitation as a great learning resource. Most new “vascoparlantes” show certain difficulties pronouncing sibilant consonants, and the teacher plays an essential part in the learning process as reference and role model for his/her students. Games are also very significant as a factor of child development. The dislalia, that is, the specific impairment which refers to the difficulty in articulating words, is one of the most common disabilities found in early childhood education. This speech-language condition usually affects children between three and five years old. Most problems arise when the organs of a subject do not perform the specific right movement to produce a certain sound.

Keywords: phonetics and phonology, the child’s speech, the pronunciation of the words, the development of language, the pronunciation difficulties.

Aurkibidea

Introducción	1, 2
1. Fonetika eta fonologia	3
1.1. Zer da fonetika	3
1.2. Zer da fonologia	4
1.3. Fonetika eta fonologiaren arteko desberdintasuna	4, 5
1.4. Hizkuntzaren garapena haurrengan	5-7
1.4.1. Ingurugiroaren eragina	6
1.4.2. Giza aurrebaldintzak	7
1.4.3. Garapen fonologikoa	7
1.5. Fonetika komunikazio prozesuan	8-10
1.5.1. Soinuaren ekoizpena	10-12
1.5.2. Soinuaren transmisioa	12, 13
1.5.3. Soinuaren hautematea	13, 14
1.6. Fonetika eta fonologiaren arteko aldea euskaran eta gaztelanian	14-17
1.7. Behaketa pertsonala	17-27
1.8. Fonetika lantzeko proposamena	27-35
2. Dislalia	35
2.1. Zer da dislalia	35, 36
2.2. Dislaliaren jatorria	36, 37
2.3. Dislalia motak	37, 38
2.4. Trataera	38
2.5. Berreziketa	39, 40
2.6. Behaketa pertsonala	41-43
2.7. Proposiciones para trabajar la dislalia	43-45
Conclusiones	47, 48
Ondorioak	48-50
Erreferentziak	51
Eranskinak	52

Introducción

La didáctica de la lengua es un área que siempre me ha gustado. Sin embargo, en un principio el tema de la fonética y fonología no me convencía mucho, ya que mis conocimientos eran escasos. Según he ido conociendo el tema mi curiosidad ha ido en aumento.

Los temas que he querido trabajar han sido por un lado, saber más sobre qué es la fonética y la fonología y ver la diferencia que hay entre ambas. Por otro lado, conocer el desarrollo de la fonética y fonología que se da en el habla de los niños, y para ello he hecho un trabajo de observación personal en una ikastola de Pamplona, concretamente en un aula de niños de cinco años de la ikastola Amaiur de Pamplona / Iruña. Otro de los objetivos que perseguía era conocer la fonética en el proceso de la comunicación y ver la diferencia que existe entre la fonética y la fonología en euskara y castellano. Además, pretendía observar los trastornos que se dan en el habla, es decir, los problemas que surgen cuando un sujeto no sabe cómo articular un sonido. Por último, quería saber cómo reeducar y trabajar estos errores que se dan en el habla, ya que la fonética es una de las áreas del idioma que se tiende a ignorar en el aula, mientras que se priorizan otros aspectos como el vocabulario o la gramática.

Para trabajar estos temas y para enriquecer los conocimientos existentes, me he servido, en primer lugar, de la conocida *Fonética Histórica Vasca* (1977) de Koldo Mitxelena. Este autor fue un destacado lingüista vasco y hasta el día de hoy es considerado como una de las máximas autoridades en los estudios sobre el euskera. También he utilizado la obra denominada *Euskal fonología* (1980) de José Luis Álvarez Emparanza, más conocido por el seudónimo de Txillardegui, que fue lingüista, político y escritor. Por otro lado, me ha sido de gran ayuda el trabajo de Miren Lourdes Oñederra titulado *Fonetika fonología hitzez hitz* (2004). Esta autora es lingüista de profesión, especialista en fonología.

Pienso que la fonética-fonología desempeña un papel muy importante en el desarrollo del habla y el objetivo general del trabajo es conocer este ámbito e

intervenir para corregir las pronunciaciones erróneas observadas en el habla de los niños. En cuanto a los objetivos específicos que trato de explicar y razonar en el trabajo realizado son los siguientes: relacionar la adquisición fonética y fonológica con la edad, observar la importancia de la profesora y del entorno del niño en su desarrollo y conocer las alteraciones que se dan en educación infantil a la edad de cinco años.

Este tema es mucho más amplio de lo que hemos podido ver en el trabajo realizado. Me hubiese gustado conocer las diferencias fonético-fonológicas que existen en los diferentes dialectos de la lengua vasca, pero el poco tiempo disponible para el desarrollo del trabajo de fin de grado no me lo ha permitido.

1. FONETIKA ETA FONOLOGIA

Hizkuntzaren fonetika eta fonologia hizkuntzaren ahoskerari dagozkion alderdiak dira. Gizakiok hizketa ekoiztearekin eta hautematearekin du zerikusia. Hiztunak hotsak atera eta entzutean gertatzen denaz arduratzen dira. Hitz egitea eta batak besteari entzutea eguneroko bizitzako eginkizun arruntak dira. Eguneroko esaldi arrunt batean (demagun, elkar agurtzea) hiztunak eta entzuleak elkar ulertzen dute. Elkarrekin komunikatzeko duten gaitasuna beraien gorputzen funtzionatzeko moduaren menpe dago (garuna, birrikak, laringea, ahoa, belarriak, eta abar), batak bestearen ahoskera ezagutzearen menpe eta airean zehar barreiatzen diren hots uhinen interpretazioaren menpe.

1.1. Zer da fonetika?

Fonetika, hizkuntzalaritzan, hizkuntza baten soinuen burutzea eta oharpena aztertzen dituen zientzia da.

Hizkuntzaren hotsen ahoskera (artikulazioen fonetika), hots horien ezaugarri akustikoak (fonetika akustikoa), eta hizkuntzaren sistemaren barruan duten zeregina (fonetika linguistikoa) aztertzen ditu fonetikak.

Fonetika berria 1867an hasi zen, Alexander Melville Bellek hotsak marrazkietan irudikatzeke egin zituen ikerketekin. Fonetikaren ahalegin nagusia giza hizketaren hotsen sailkapenean datza. Noam Chomsky eta Morris Halle hizkuntzalariek 30 ezaugarriren zerrenda egin zuten, giza hotsen ñabardura eta berezitasun garrantzitsu guztiak sailkatzeko.

Hotsen irudikapenerako zenbait transkripzio sistema erabili dira. Ezagunena Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa/International Phonetic Alphabet (IPA) da. Honela, ahozko soinuak idatz daitezke, hizkuntza edo dialektoaren arabera. IPA oso erabilgarria da fonetika ikasteko eta irakasteko.

1.2. Zer da fonologia?

Fonologiak hizkuntzaren hotsei dagokien alderdia aztertzen du, hau da, hizkuntzak ahoskatu eta hautematean datza. Hotsek nola funtzionatzen duten aztertzen du (hizkuntza jakin batean edo hizkuntzan, oro har), alegia, adiera bereizten duten fonemak aztertzen ditu, «pare minimo» deitzen direnetan ikus daitezkeenak (*ardo* ≠ *arto*, *bele* ≠ *bere*, *erdi* ≠ *ardi*, *zapi* ≠ *zati*...).

1.3. Fonetika fonologiaren arteko desberdintasuna

Taula 1. Fonetika eta fonologiaren desberdintasuna

FONETIKA	FONOLOGIA
Soinuez arduratzen den hizkuntzalaritzaren adarra.	Fonemaz arduratzen den hizkuntzalaritzaren adarra.
Fonetikak giza hizkuntzan dauden soinuak aztertzen ditu.	Fonologia hizkuntzaren sistemaz, ezaugarri abstraktuek arduratzen da.
Fonetika soinuaren alde fisikoaz arduratzen da, giza hizkuntzetan erabiltzen diren alde fisikoez.	Fonologiak sisteman bereizgarriak diren unitate fonikoak aztertzen ditu.
Unitatea: soinua da.	Unitatea: fonema da.
Adarrak: akustikoa, artikulazikoa eta pertzepziozkoa. Artikulazikoa: Igorleak kode bat erabiltzen du komunikatzeko. Akustikoa: Kodea bidaltzean datza. Pertzepziozkoa: Hartzaileak mezua jasotzen du eta hau interpretatzen du.	Alofonoa: Fonema baten aldaera da, inguru fonikoak eraginikoa. Adibidez, /n/ horzkari ebakitzen da soinu horzkari baten aitzinean, <i>andia</i> 'handia' hitzean, konparaziorako.
	Fonazio organo finkoak: goiko ezpaina, hortzak, hortz-hobiak, ahosabaia, beloak.

	Fonazio organo mugikorrek: beheko ezpaina, mingaina.
--	--

“Hizkuntza baten fonologia jakin gabe, ezin da fonetika azaldu, deskribatu”.
(Ladefoged, 2003: 1)

Zenbait hizkuntzalarik fonetika (hizketaren hotsen ahoskatzea eta deskribapena) fonologiaren barruan sartzen dute. Fonetikan hotsen artikulazioa eta akustika aztertzen da, eta fonologian berriz, esanahi aldaketak sortzen dituzten hotsen sistemak eta sistemaren barruko arauak. Adibidez, fonetikak [r] hotsaren ezaugarri fisikoak aztertzen ditu *hari* hitzean, eta fonologiak, berriz, *hari* eta *harri* hitzen arteko esanahi aldaketa eta /r/ eta /r/ fonemen arteko oposizioa.

Hiztunok hotsak atera eta entzutean gertatzen denaz arduratzen dira. Hizkuntza fisikoki, fonetikoki, kanporatzen eta jasotzen dugu eta hori egin ahal izateko, gaitasun fonologikoa dugu.

Hotsak ahoskatu eta entzun ahal izateari esker zaizkigu posible elkarrizketa zuzenak. Hizkuntza ezagutzen ez dutenek ordea, behar bezalako ahoskera ezin izango dute ekoiztu. Ongi entzunda ere, ez dira gai izango hotsak deskodetzeko eta behar bezala mezua ulertzeko.

Fonemaren eta fonologiaren arteko harremanaren eta desberdintasunaren gakoak, geure buruak ematen digu: fonetika ekoizten dugu baina fonologikoki funtzionatzen dugu eta egiten dugun fonetika hori gure oharmenaren fonologiak kudeatzen du.

1.4. Hizkuntzaren garapena haurraren

Hizkuntzaren garapena giza bizitzako iturburuan oinarritutako prozesua da, pertsona bat hizkuntza, hizkeraren eta mimikaren bidez, bereganatzen hasten denean. Haurren hizkuntzaren garapena sinpletasunetik konplexutasunera igarotzen da. Jaioberriak hizkuntzarik gabe hasten dira. Hala ere, lau hilabeterekin ezpainak irakurtzeko eta hizketaldiaren hotsak bereizteko gai dira.

Oro har, hizkuntza hitz errazen oroitzapenekin hasten da, hitzaren beraren berezko esanahiari loturik egon gabe. Haurrak hazten diren heinean, hitzek esanahia

eskuratzen dute eta hitzen arteko konbinaketak sortzen dira. Denborak aurrera egin ahala, esaldiak hasierako hitzak bezala elkartzen dira eta zentzua hartzen dute. Hitz berriak ikasten diren heinean, hiztegia aberastu egiten da.

Haur jaioberriek gorputza, garrasiak eta beste ahoskatze motak erabiltzen dituzte nahiak, beharrak eta gaitasunak adierazteko. Edozein ikasketa gertatu aurretik, haurra biologikoki eta sozialki heldua izan behar da.

Hizkuntzalari guztiak ez daude ados hizkuntzaren garapenari laguntzen dioten faktore biologikoak zein diren zehazteko orduan, baina gehienak ados daude sistema korapilatsu hori bereganatzeko gaitasuna gizaki bizidunei dagokigula adieraztean. Hizkuntza ikasteko dugun trebetasuna eboluzio prozesuaren bidez garatzen da. Hizkuntza ulertu eta hitz egiteko aho aparatu zehatza eta gaitasun bereziak dituen nerbio-sistema beharrezkoak dira.

1.4.1. Ingurugiroaren eragina

Haurrak hitz egiten ikasten du bere inguruan berari hitz egiten dioten pertsonak badaude. Helduaren mintzaira haurraren eredia izango da.

Hainbat ikertzailek umeez dituzten bizikizunek beren hizkuntza gaitasunetan eragina dutela esaten dute. Zenbaitek azpimarratzen dutenez, haurrek interes handia erakusten dute beren mundu sozialarekiko eta garapenaren hastapenetan jadanik besteen asmoak ulertzeko gai dira.

Haurraren ingurugiro linguistikoaren osagaietako bat tonu arruntean baino ozenkiago hitz egitea da, esaldi eta hitz errazekin. Umearen arreta gureganatzeko eta komunikazioari eusteko funtzio garrantzitsua da. Helduek umeeziko zuzeneko hizkeraz gain, zenbait estrategia jartzen dituzte praktikan, bat-egitea, hedapena eta etiketatzea esaterako: bat-egiteak umeak esandakoa errepikatzean datza, galdera bihurtzean edo umearen adierazpen heldugabea esaldi gramatikal oso baten bidez behin eta berriz errepikatzean. Hedapena, ondoren, umeak adierazitakoa berrestea da, baina linguistikoki sofistikatua den eran. Etiketatzea, azkenik, objektuen izena identifikatzea da.

1.4.2. Giza aurrebaldintzak

Garrantzitsua da umeak ahoskatu eta galderak erantzuteko gai den jendearekin komunikatzea. Hauen hizkuntzaren garapena arrakastatsua izan dadin, hizkuntza horretan komunikatzea posible den ingurugiro batean egon behar dute.

Umeen hizkuntzaren garapena zergatik gertatzen den eta nolakoa den azaltzen duten zenbait teoria aurki daitezke. Onartuenek hizkuntza imitazioaren bidez barneratzen dela diote. Hizkuntzaren garapenari buruzko bi teoria zabalduenak psikologikoa eta funtzionala dira. Psikologikoak haurtzaroko prozesu mentalean du oinarria, batez ere hizkuntzen ikasketan. Funtzionalak, ordea, ikasten den lehenengo hizkuntzak inplikatzeko duen giza prozesuetan du oinarria.

Hauek dira hizkuntzaren lau osagai garrantzitsuenak:

- *Fonologia*: Hizketaren soinuaren egitura eta sekuentzia aztertzen ditu.
- *Semantika*: Hiztegia eta hitzen bitartez kontzeptuak nola adierazten, bideratzen diren aztertzen du.
- *Morfosintaxia*: Bi atal ditu. Lehenengoa morfologia da eta markatzaile gramatikalen erabileraz arduratzen da (aditza, hitz-elkarketa eta eratorpena deklinabidea, etab.). Bigarrena sintaxia da eta hitzek esaldiak nola osatzen dituzten aztertzen du.
- *Pragmatika*: Komunikazio egoki eta arrakastatsurako arauak aztertzen ditu.

1.4.3. Garapen fonologikoa

Jaio eta urte bat bete arte, haurrek ahoarekin soinuak sortzen dituzte, gehienbat bokalak. Lau hilabeterekin zizelkatze errepikatuak sortzen hasten dira, bokalak eta kontsonanteak nahasten dituzte.

Urte bat eta birekin, haurrek hitz ezagunen ahoskapan zuzena egiten dute. Horretarako, zenbait sinplifikatze estrategia daude, lehen kontsonantearen errepikapena esaterako: *apapa* 'pasean' edo *glu-glu* 'edan'.

Bitartean, hiru eta bost urte bitartean ahoskatzea hobetzen da. Horrez gain, sei eta hamar urte bitartean, umeek antzeko esanahiko hitzak bereizten hasten dira eta ahoskapan zuzena izatera iristen dira.

1.5. Fonetika komunikazioa prozesuan

Hizketaren soinuak gizakion eguneroko bizitzan parte hartzen dute, komunikatzeko erabiltzen baititugu. Gainerakoekin komunikatzean zenbait ezagutza inplizitu erabiltzen ditugu, baina hauen erabileraz ez gara ohartzen. Modu naturalean egiten ikasi dugu.

Komunikazio linguistikoaren prozesuan fonetikak beti hartzen du parte eta hiru modutan bereizi edo izenda daitezke: artikulaziozko fonetika, fonetika akustikoa eta pertzepziozko edo entzumenezko fonetika. Ondoren hiru fonetika mota hauek azalduko dira.

Komunikazioaren eskema

Ikertzaile asko dira komunikazio prozesuan hizkuntzaren funtzioaz interesa agertu dutenak eta batzuek komunikazioa modu honetan azaltzen dute: hiztun batek beste bati zerbaiten inguruan zerbait esaten dionean gertatzen da. Hizkuntzalari gehienek onartutako komunikazioaren eskeman osagai bat baino gehiago ageri dira eta hauek dira bakoitzaren azalpenak:

Igorlea: komunikazio prozesuan mezua kodifikatzen duena da, hau da, informazioa bidaltzen duena da.

Hartzailea: mezua deskodetzen duena da, hau da, informazioa jasotzen duena da.

Erreferentea: mezua aurkitzen edo adierazten den errealitateari deitzen zaio, hau da, mezuari esker eskuratutako errealitatea da.

Mezua: komunikazioaren ekintzan ematen den informazioa da.

Kodea: zeinuen multzoa da mezua lortzeko arau batzuekin bateratzen dena edo beste modu batera esanda, informazio jakin bat irudikatzeko eta igortzeko helburua duen sinbolo sistema da.

Testuingurua: igorlea eta hartzailea dauden egoerari deitzen zaio eta gehienetan bidalitako mezua ondo ulertzea baimentzen du. Inguruneko testuingurua hartzeaz gain kulturala, soziala, solaskide bakoitzak bestearekiko duen ezagutza, solaskideak bizi diren errealitatearen edo munduaren inguruko ezagutzak ere hartzen ditu.

Kanala: mezuak bertatik garraiatzen da.

Komunikazio egokia izateko, solaskideek, erabilitako kodea ezagutu behar dute bestela ez dute elkar ulertuko. Elkarriketetan normalean igorlearen eta hartzailearen paperak

aldatu egiten dira, hau da, biek hitz egiten dute eta biek entzuten dute. Beste kasu batzuetan ez da horrela gertatzen, esaterako hizketako egintza batean. Igorlea bakarra izaten da eta hartzaileak bat baino gehiago izaten dira.

Fonetika hizketako egintzan

Hizketako egintzan hiru fase desberdinekin aurkitzen dira:

Kodifikazioa edo igorpena → testuinguruko kanal batetik kodifikatutako mezuaren transmisioa → deskodetzea edo hartzea eta interpretazioa.

Bakoitzean fonetika modu desberdin batean garatzen da.

Artikulaziozko fonetika: hizketaren soinuen ahoskuntza eta ebakera prozesuak aztertzen ditu.

Fonetika akustikoa: airearen bidez transmititzen diren soinuen ezaugarri fisikoak hartzen ditu.

Pertzepziozko edo entzumenezko fonetika: Hizketaren soinuen eskuratzearen azpiko mekanismoak aztertzen ditu.

Zerbait esaten dugunean lehenik eta behin transmititu nahi dugun edukian pentsatzen dugu, ondoren erabiliko dugun kodearen unitatean eta honen bateratzean, hau da, kodifikazioan pentsatzen dugu eta azkenik fonazio edo ahoskuntza aparatuari mezua ekoizteko agindua ematen diogu. Bidalitako mezua hartzaileak jasotzen du eta hau deskodetzen eta interpretatzen saiatzen da. Horrela izanik, aurrerago aipatutako hiru fase horiek orain modu honetan azalduko dira:

Kodifikazioa edo igorpena (artikulaziozko fonetika) → testuinguruko kanal batetik kodifikatutako mezuaren transmisioa (fonetika akustikoa) → deskodetzea edo hartzea eta interpretazioa (pertzepziozko edo entzumenezko fonetika)

Ondoren hiru fonetika mota hauek sakonago azalduko dira. Hiru mota hauetaz gain, fonetika orokorra eta fonetika partikularra bereizten dira. Izenak berak esaten duen moduan, fonetika orokorrak munduko hizkuntzen soinuen ekoizpenean, transmisioan eta interpretazioan, ezaugarri eta prozesu orokorrak, unibertsalak, teorikoak definitzen saiatzen da. Fonetika partikularra berriz, hizkuntza jakin bateko azterketa edo ikasketa arloa

mugatzen saiatzen da. Horregatik hitz egin dezakegu ingeleseko fonetikaz, euskarako fonetikaz, etab.

Fonetika teorikoaz eta fonetika praktikoaz edo aplikatuaz ere hitz egin dezakegu. Lehenengoaren kasuan, soinuen deskribapenaz eta ikasketaz arduratzen da eta bigarrenaren kasuan, lortutako ezagutzak gizarteko arlo profesionalean ezartzen ditu. Modu honetan ezagutza teorikoak hizkuntzaren nahasteen logopedara edo berreziketara ezartzen dira.

Denbora kontutan hartzen badugu, hizkuntza baten soinuak historian zehar izaten dituen aldaketak ikusi ahal izango ditugu, hau fonetika diakroniko bezala ezagutzen da. Fase zehatz batean deskribatzen denari berriz fonetika sinkronikoa deitzen zaio. Ikertutakoa deskribapen huts batean gelditzen bada, fonetika deskribatzaile bezala ezagutuko da eta gizakiaren hizkerak dituen prozesuak azaltzen saiatzen bada fonetika zientifikotzat hartuko da.

Hizkuntzalaritza hizkuntza eta hizkuntzarekin lotura duten gertakariak aztertzen dituen zientzia jakitea da. Hau da, hizkuntza adierazpide edo sistematzat hartuta, hizkuntzen arteko harremanak aztertzen dituen jakintza da. Hizkuntzaren eginkizunetako bat gizakien arteko komunikazioa onartzea denez, fonetika hizkuntzalaritzaren edo linguistikaren parte izango da.

Hizkuntzalaritzaren barneko (fonetika, fonologia, morfologia, pragmatika) eta kanpoko (soziolinguistika) multzoan, ikuspegi sinkroniko edo diakronikoa izanda ere, fonetika fonologiarekin erlazionatzen da.

1.5.1. Soinuaren ekoizpena. Artikulaziozko fonetika

Mekanismo konplexua jartzen dugu martxan gure gorputzean soinuak ekoiztu nahi ditugunean. Batetik organo askoren funtzionamendua jartzen da martxan eta hauen erabilera beharrezkoa dugu, bestetik, denbora-espazioren arteko koordinazioa behar dugu.

Artikulaziozko fonetikak hitz egitean gertatzen diren mugimenduen koordinazioaren eta hauen ekoizpenaren inguruko teoriak sortzen ditu.

Fonazio aparatua

Giza gorputzak ez du soinuak ekoizteko aparatu zehatzik, horretarako beste zeregin batzuk dituzten organoak erabiltzen ditu. Giza ahotsa laringean sortzen da baina bere atal garrantzitsuena glotisa da, gizakiaren benetako fonazio-organoa da. Biriketarik arnasketarekin batera irteten den airea, glotisean zehar pasatzen da eta ahots-kordek dardara egiten dute.

Artikulazio organoek fonazio aparatuan eta pertsonaren hizkeraren soinuen ekoizpenean parte hartzen dute. Fonazio aparatua hiru zatitan banatzen da: beheko edo azpiko zatia *barrunbe infraglotikoa (sudurreko barrunbea, ahoko barrunbea eta faringea)* erdiko zatia *barrunbe glotikoa (laringea)*, goiko zatia *barrunbe supraglotikoa (trakea, biriak, bronkioak eta diafragma)*. Zati bakoitzak eginkizun edo zeregin desberdina du: lehena arnasketaz arduratzen da, airea gordetzeaz eta botatzeaz; bigarrenak fonazioaren mekanismoa du helburu, laringearen uhina ekoiztea; hirugarrena eta azkena, soinu desberdinak ekoizteko laringearen uhinak aldatzeaz arduratzen da eta lortutako soinuak goratzeaz. Soinuaren ekoizpena, beraz, fonazio aparatua dituen hiru zatietako batekin erlazionatzen da.

Jaiotzean edo jaioberritan arnasketa abdominala edo sabelekoa erabiltzen dugu eta helduak garenean arnasketa abdominala lo gaudenean mantentzen dugu baina altxatzean edo zutik jartzean alderantzizko mekanismoa erabiltzen dugu: arnasa hartzean sabela atzera eramaten dugu eta saihetsak altxatzen ditugu eta arnasa botatzean toraxa hondoratzen dugu eta sabela aurrera eramaten dugu.

Hizkuntzaren soinuak normalean arnasa botatzean ekoizten ditugu. Normal, arrunt arnasten dugunean arnasa botatzearen uneak hartzearenak baino denbora gehiago irauten du baina hitz egiten edo abesten dugun unean arnasa botatzearen iraupena nabarmenki handitzen da. Hala ere, egoera honek hiztunari ez dio inongo kalterik eta eragozpenik egiten. Artikulazioa edo ahoskuntza oso azkarra da eta hitz egiten dugunean minutuko 200 eta 210 silaba eta segundoko sei edo zazpi soinu ekoizten ditugula esan daiteke. Ikertzaile batzuek diotenaren arabera, arnasketaren maiztasuna gorputzaren tamainarekin erlazionatuta dago, horrela haur jaioberri batek minutuko hirurogei aldiz arnastuko du eta hiru urteko haur baten maiztasuna 25-30 arnasketa ingurukoa izango da. Handitzen den heinean maiztasun

hori txikiagotzen joango da. Sexuen arteko bereizketak ere garrantzia du arnasketaren maiztasunean; izan ere, emakumeak minutuko 18-20 aldiz arnasa hartzen eta botatzen dute eta gizonezkoek berriz, 16-18 aldiz egiten dute. Pertsona edo gizakia norabide desberdinetako aireaz baliatuta soinuak ekoizteko gai da.

Bokalak ekoiztean, biriketatik heldu den aire-etorriarekin laringean ahots-kordek dardara egiten dute eta airea ahots-bidetik kanporatzen da. Bokalek aire kanporatze horretan ez dute inolako oztoporik. Artikulazio organoak bokalak ekoizterakoan daude irekien, eta horrekin batera, bokalek oinarrizko frekuentzia garaiena izan ohi dute. Ahots bidearen tamaina eta forma alda daiteke, batez ere mihia eta ezpainak mugituz, horrela bokal desberdinak sortzen dira. Kontsonanteei dagokienez, artikulatiorioki kontsonanteak dira aire etorrian nolabaiteko traba duten hotsak. Traba ahots-kordak estutzea, mihiarekin sabaia ukitzea, ezpainek elkar ukitzea izan daiteke.

Hitz egitean ez ditugu soinu isolatuak edo bakartuak ekoizten, bata bestearen segidan ekoizten ditugu eta kate fonikoa bezala ezagutzen da. Soinu bat ekoiztean organo batek baino gehiagok hartzen dute parte. Soinu bat ekoizten dugun bitartean, organoak hurrengo soinua ekoizteko prestatzen dira edo lekua hartzen dute, horrela kate fonikoan ekoiztutako soinuak elkarrekin moldatzen edo egokitzen direla esan genezake.

1.5.2. Soinuaren transmisioa, igorpena. Fonetika akustikoa

Norbaitek mezu bat ekoizteko ahoaren artikulazioak mugitzen baditu baina ahotik airea ateratzen uzten ez badu, esaten ari dena ulertzea oso zaila izango da. Ezpainaren mugimenduei begira zerbait uler genezake baina mezu guztia ulertzea oso zaila izango da. Egoera honetan soinua falta dela argi dago. Hartzailleak pertzepzio aparatua martxan izango du mezua jasotzeko eta interpretatzeko baina kasu honetan ez da ahoskuntzarik edo fonaziorik egon beraz ez du mezu jasoko. Soinua igorlearen eta hartzaillearen artean gertatzen den zerbait dela esan dezakegu. Igorlearen eta hartzaillearen artean mezua transmititzerakoan aurkitzen diren soinu-uhin ikusezinak dira. Soinu-uhinak ikusi ahal izateko tresna zehatz batzuk behar dira.

Fonetika akustikoak, igorlearen eta hartzailearen artean mezua bidaltzen den bitartean, hizkuntzaren ezaugarri akustikoak aztertzen ditu.

Hiztegiak soinua modu honetan deskribatzen du: entzumenaren bidez sumatzen den hots erritmikoa edo entzumenarentzat atsegingarri diren harmoniaz eta erritmoz jantziriko hotsak.

Igorlearen eta hartzailearen artean airean garraiatzen den mezua soinu-uhinen moduan egiten du eta uhin hauek ezaugarri fisikoak eta akustikoak ditu. Soinu oso baten iraupenari periodo deitzen zaio. Periodoa zenbat eta handiagoa izan, maiztasuna orduan eta txikiagoa izango da eta alderantziz.

Pertsonen edo gizakiaren hizkeraren soinuen analisi akustikoa egiteko oinarrizko hiru grafiko erabiltzen dira, oszilograma, espektroak eta sonograma.

1.5.3. Soinuaren hautematea. Pertzepziozko fonetika

Pertzepzioa edo hautematea ingurunetik jasotzen diren estimuluen antolaketa, identifikazioa eta interpretazioa burutzen dituen ahalmen fisiko eta psikologikoa da. Pertzepzioa entzumenetik hasten da eta hau belarriari esker gertatzen da. Honek iristen zaizkion soinu-uhinak jasotzen ditu. Mezuaren hautematean gainerako zentzumenek ere parte hartzen dute.

Entzumena belarran hasten da, soinu-uhinak hartzen edo entzuten dituenean. Uhinak nerbio-bulkada bihurtzen dira eta hemendik aurrera hasten da prozesu garrantzitsuena. Nerbio-bulkada bihurtutako soinuen pertzepzioa eta interpretazioa garunera iristen dira. Belarran hiru zati bereiz daitezke: kanpoko belarria (airearen bidez iristen zaizkion soinu-uhinak jasotzen ditu), erdiko belarria (uhinen intentsitatea eskuratzen saiatzen da) eta barruko belarria (uhinak nerbio-bulkada bilakatzen ditu eta garunera bidaltzen ditu).

Aurrerago esan dugun bezala entzumenak soinuak hartzen ditu eta hauek nerbio-bulkada bihurtzen ditu, pertzepzioak berriz, nerbio-bulkada hauek bidalitako mezuak interpretatzen ditu. Belarriaren fisiologiak ez du ulertzen pertzepzioa nola sortzen den eta honen ikerketa egiteko pertzepziozko probak edo testak egiten dira.

Pertzepzioaren ikuspegitik soinetan hiru ezaugarri bereizten dira: tonua (ahotsaren beheragoko nahiz goragoko soinua, hau da, ahotsaren edo hotsaren garaiera), pertzepzioaren ezaugarri akustikoak (soinu baten intentsitatea) eta tinbrea (hotsaren berezko ezaugarrietako bat da, goratasun eta intentsitate bereko hotsak bereizten dituen).

Soinuen informazio akustikoa ugaria da baina honen pertzepzioari dagokionez, garrantzizko elementu ugari ditu. Telefonoz hitz egiten dugunean garrantzitsuak diren maiztasun-banda batzuk galtzen dira; hala ere, mezua ondo ulertzen dugu. Honek pertzepziorako soinu-uhinen elementu guztiak ez direla beharrezkoak pentsatzera eramaten gaitu. Indize akustikoak deitzen direnak, informazio akustiko garrantzitsuenak dira, entzule bezala soinu bat beste batetik bereizteko erabiltzen duguna.

Ez da egia artikulazioan gertatzen den edozein aldakuntzak akustikan eta pertzepzioan desberdintasunak ekartzen dituela, hau da, berezko soinuaren ordeztu beste soinu bat entzuten dela. Horrela izango balitz, ezin izango genuke elkar ulertu ekoitz genitzakeen soinuak oso urriak liratekeelako. Gizakiak soinu-uhinetatik informazioa hartzearen eta mezua interpretatzearen mekanismoa bi teoriak azaltzen dute, teoria aktiboak eta teoria pasiboak.

1.6. Fonetika eta fonologiaren arteko aldeak euskararen eta gaztelanian

Euskararen eta gaztelaniaren artean dagoen aldeari erreparatu ahal izateko, batetik, euskal bokalen ahoskeraren inguruan hitz egingo dugu. Txillardegiren aburuz (1980, 20):

- “gure [a] normalean, gaztelaniazkoa baino itxiagoa da”, *sabaikariagoa*.
- “gure [i], [e], [o], [u] bokalak, normalean ere, gaztelaniazko kideak baino irekiago esaten ditugu” (mihia beherago kokatuz).

Bokalen sistemak, gaztelaniaz eta euskaraz, *fonologikoki* berdinak dira baina *fonetikoki* desberdinak.

Oñederrak dioenez (2004, 60), “bokalak hots irekienak dira eta hauen artean irekiak [a] da”.

Mitxelenak berriz (1977, 47) euskal barrietate gehienek bokal sistema sinplea daukatela esaten du, gaztelaniaren antzekoa, hau da, bost fonema dituztela eta hiru irekidura

maila. Gaztelaniaren eta euskararen bokalen arteko parekotasuna sisteman ez ezik, gauzatze fonetikoan ere gertatzen da.

Euskararen sistema orokorra, munduko hizkuntzetan, sistema zabalduena da. Maddieson-en lanak (1984, 126) 317 hizkuntzen bokalei buruzko datuak biltzen ditu eta bost bokal dituztenak %21,5 direla aipatzen du.

Euskal bokalen arteko txandakatzeak gaztelaniakoetan baino gehiago gertatzen dira. Zenbait inguramendu fonikotan batez ere, normal gertatzen dira bokal-trukeak. (Txillardegí, 1980, 22)

Euskararen eta gaztelaniaren arteko desberdintasun bat honakoa izan daiteke: “gaztelaniaz oso normalak dira [ja], [je], [jo], [wa], eta [we] diptongo goranzkoak. Aski dugu pentsatzea *hacia, nadie, cuando, puedo* bezalako hitzak maiztasun handikoak direla gaztelanian. Euskaraz ez da hori gertatzen, guk [ia], [ie], [io], [ua] eta [ue] multzoak bisilabiko egiten ditugu normalean, nahiz eta zenbait kasutan [ja], [je], [jo], [wa] eta [we] entzutea posible izan”. (Txillardegí, 1980, 73)

Erdaldunek askotan gure hiatoak diptongo egiten dituzte eta hau gure izen nahiz toponimoetan nabaria da. Alderantziz ere gertatzen da, hau da, gure diptongoak askotan gaztelaniaz mintzo direnek beren modura esaten dituzte, hiato eta silababiko bihurtuz. Adibide bat: *Noain* (silababikoa da, azentua bokal irekian darama eta *a*-k eta *i*-k diptongoa osatzen dute: *Noáin*) erdal telebistan berriz *Noáin* ahoskatzen dute (hiru silabatan, hiatoarekin).

Bi hizkuntzen arteko alderaketarekin jarraituz, bestetik, euskal kontsonanteen inguruan hitz egingo dugu. Erdaratik datozen [b] asko, batez ere mailegu zaharretakoak (alegia, latinetik datozen hitzetakoak), euskaraz [m] bihurtzen dira.

Zenbait kasutan, ondoan dagoen beste sudurkari batek aurreko *b* hori asimilazioz aldarazi duela dirudi. Esate baterako: “gaztelaniazko */ventura/-tik* (= [beñtúra]), euskaraz *mentura* sortu da”. (Txillardegí, 1980, 112). Adibidez:

lat.: vagina esp.: vaina eusk.: *magina*

lat.: vindicare esp.: vengar eusk.: *mendekatu*

Beste zerrenda honi erreparatuz gero berriz, gaztelaniako [mb] euskarako [m] bihurtu da. (Txillardeggi, 1980, 114). Adibidez:

gazt., convento = c., *komentu*

gazt., comparación = c., *gomarazio*

“Erregulartasun interesgarritzat jo daiteke maileguei bakarrik ezartzen zaizkien ordezkatzek egotea. Halakoa litzateke gaztelaniako *-on* > euskarako *-oi* ordezkatzek: *balkoi, miloi, patroí*” (Oñederra, 2004, 70).

Kontsonante txistukariak euskaraz sei dira eta gaztelaniaz, berriz, hiru:

eusk.: [ś], [s], [š] edo [ʃ], [ć], [c], [č] edo [tʃ]

gazt.: [ś], [θ], [č] edo [tʃ]

Etxeko euskaldun ez direnek arazoak izan ditzakete hauen ahoskerarekin. Hiru fonemarekin ohituta, sei adierazi behar baitituzte. Ondoren zati praktikoan, nik neuk eginiko probetan, arazo hauek ikusi ahal izango dira, izan ere, zailtasun gehienak soinu hauek ekoiztean dituzte.

Zailena jatorrizko fonologia-sistema ahaztu eta sistema edo egitura fonologiko berrian murgiltzea da. Gaztelania ikastean arazo berberak (baina alderantzizkoak) topatzen ditu euskaldunak. Gaztelaniako hitza ahoskatzean, [θ] hortzartekoa esan ezin, eta [s] esaten da.

“Euskal [č] soinua, gaztelaniazko [č] soinua baino atzerago ahoskatzen da. Aski da *mucho* hitza euskaldun ahotan entzutea”. (Txillardeggi, 1980, 144)

Euskaraz afrikatuek nortasun bereziko sail fonemikoa osatzen dute. Honek hiztunaren oharren eta bereizkuntza gaitasunean berebiziko garrantzia du. Honen erakuskari da Oñederrak bizitutako gertakari bat (2004, 25): “Autobusean nire ondoan gaztelaniaz ari zirenen elkarrizketa zatietatik, norbaiten izena iristen zitzaidan behin eta berriz, [bentsa] transkribatuko nuena. *Beltza* edo antzeko goitizenen bat ote zen adi-adi nengoela, hara hor non ohartu nintzen, testuingurua eta informazioa osatu ahala, *Ben Said* ari zirela esaten”.

Oñederrak dioenez (2004, 64) “*Llabur* eta *Jon* hitzen hasierako kontsonanteen arteko desberdintasuna bakarra da. Lehena albokaria da eta bigarrena ez. Bi hots hauek artikulatorki eta akustikoki oso antzekoak dira. Albokaria izanik markatuena eta

artikulatorioki konplexuena, ulertzekoa da hizkuntzak bat galtzekotan horixe galtzea". Gaztelaniaren historia hurbilean gertatu da hori eta euskaraz ere gauza bera gertatzen ari da baina gaztelaniagatik; hau ez da euskararen barreneko gauza.

Zati praktikoa ikus daitekeen moduan, haur gehienek <ll> eta <y> arteko soinuen desberdintasuna ez dute ezagutzen. Ingurukoek desberdintasun hori ahoskatzen ez dutelako da. Batzuek hurbilen duten soinua ekoizten dute eta hau izan daiteke [λ] adierazteko [il] ahoskatzearen arrazoia. Zenbait irakaslek ezin palatala eman eta idazten den bezala ebakitzen dute.

Oñederrak dioenez (2004, 63) eta dardarkariei dagokienez, dardarkariak dardarkari izateko, nahikoa da ixte lasterraren errepikapen bat egitea. Euskarazko ahoskeran gaztelaniazkoan baino errepikapen gehiago egiteko joera dago.

Dardarkarien gaiarekin jarraituz, esan behar da, euskaldun ezpainetan maiz entzuten direla [r] gogorak, erdaraz baino maizago:

gogortu = [gogortu] (*gogorrrtu* idatzi balitz bezala) dardara *anizkunarekin*.

Gaztelaniaren eta euskararen arteko alderaketa teorian ikusi eta gero, honekin erlazionatutako hainbat zailtasun edo arazo ikusi ahal izango dira zati praktikoa, nik egindako behaketa pertsonalean.

1.7. Behaketa pertsonala

Zati teorikoa ikusi eta gero, hizkuntzaren ahoskerari buruzko alderdiak gelan hurrekin behatu nahi izan ditut, hain zuzen hizkuntzaren soinuak nola burutzen dituzten. Nire helburua adinari egokitutako garapen fonetikoa behatzea izan da, haurren ingurugiroak duen eragina ikustea eta erdaratik heldu direnen eskurapen fonetikoa nola gertatzen den behatzea.

Behaketa hau egiteko, praktiken egonaldiaz baliatu naiz, baita praktikak amaitu eta gero egunez ere. Haur hezkuntzako bost urtekoen gelan izan naiz eta bertan izan naizen bitartean entzundakoaz gain proba batzuk pasa ditut. Horietako batean, haurren ahoskerari erreparatzeko, argazki desberdinez baliatu naiz, hurrei bertan ikusten dutena azaltzeko eskatuz.

Haur hauek hiru urte zituztenetik irakasle berarekin egon dira gelan. Batzuen lehen hizkuntza euskara da; beste batzuen, ordea, gaztelania, eta elebidunak direnak ere badaude (etxean euskara-gaztelania hitz egiten dutenak eta euskara-katalana hitz egiten dutenak). Lehen hizkuntza euskara dutenen artean, bizkaitarra den haur bat dago eta aitak etxean bizkaieraz egiten dio. Kanean euskaraz egiten ez dutenen edo ingurugiroa euskalduna ez dutenen artean, euskaraz har dezaketen eredu bakarria irakasleak berak emandakoa da.

Gogoan izan behar da, batetik, haurrek baliabide bezala imitazioa erabiltzen dutela. Bestetik, umeek ordura arte izandako harreman sozialak aldatu egiten direla haur hezkuntzan hasten direnean. Izan ere, haurrentzat eskola ingurune berri bat da eta bertan adin bereko beste ume batzuk ezagutzen dituzte. Azkenik, haurrek eguneko ordu gehienak eskolan hezitzaile edo irakaslearekin pasatzen dituzte, atxikimenduzko pertsonekin igarotzen zuten denbora murrizten zaie.

Behaketa:

- Zailtasun gehienak oro har [s], [ʃ], [ç] eta [č] ahoskatzean dituzte. Hau gehienbat, etxeko hizkuntzatzat erdara duten haurretan nabarmendu da, izan ere, gaztelanian ez dago horrelako soinurik.
 - I. <z> : [s] ahoskatu beharrean, batzuek [ʃ] ahoskatzen dute eta beste batzuek [θ] (gaztelaniako <z>).

Lehenengoari dagokionez, bi arrazoiengatik izan daiteke:

- Erdaratik heldu diren haurrak direlako eta gaztelanian horrelako soinurik ez dagoelako, hau da, [s]-rik ez dagoelako. Soinu hori gertuen dagoen soinuagatik ordezkutzen dute, hain zuzen [ʃ]-rengatik.
- Etxean beste euskalki bat erabiltzeko joera dagoelako. Esaterako, etxean bizkaitarrez egiten diotenaren kasua. Normalean [s] soinua eman beharrean [ʃ] ebakitzen dute.

Bigarrenari dagokionez, etxean erdaraz mintzatzen diren haurrak direlako izan daiteke eta gaztelaniaz euskarako [s]-tik hurbilen dagoen soinua [θ] delako.

Zati teorikoan ikusi dugun bezala, euskaldun berriek arazoak izan ditzakete hauen ahoskerarekin, hiru fonemarekin ohituta, sei adierazi behar baitituzte.

Zailena jatorrizko fonologia-sistema ahaztu, eta sistema edo egitura fonologiko berrian murgiltzea da.

II. <x> : [š] edo [ʃ] ahoskatu beharreak [ś] ahoskatzen dute, hau da <s>.

Honen arrazoa etxean gaztelaniaz mintzatzen diren haurrak direlako eta gaztelanian horrelako soinurik ez dagoelako izan daiteke. Gertuen dagoen soinuarekin ordezkatzeko dute, kasu honetan, [ś]-rekin.

III. <tz>: [c] ahoskatu beharreak batzuek [č] edo [tʃ] ahoskatzen dute, hau da, <tx> eta beste batzuek ordea, [θ], hau da, gaztelaniako <z>.

Honen arrazoa, gaztelanian horrelako soinurik ez dagoelako izan daiteke eta hurbilen dagoen soinuarekin ordezkatzeko dute, batzuetan [θ] eta beste batzuetan [č] edo [tʃ] erabiltzen dute.

IV. <tx>: tx-ri dagokionez esan nahi nuke, nire belarrirako haurrek ahoskatzen duten <tx> erdaraz bezala ematen dutela, nik egiten dudana baino aurrerago. Niretzako <tx>-ren ahoskera atzerago ematen da edo nik behintzat horrela egiten dut.

Adibideak:

[maráskia] ahoskatu beharreak > [maráśkia] ahoskatzen dute (hemendik aurrerakoak horrela adieraziko ditut).

[isáten] > [iśáten]

[sará] > [śará]

[esín] > [eśín]

[seláj] > [śeláj]

[kóntus] > [kóntuś]

[egúskiću] > [egúskitʃu]

[egúskia] > [egúθkia]

[gáwsak] > [gáwsak]

[mesklácen] > [meθklátʃen]

[sapáta] > [θapáta]

[és] > [és]

[siɲén] > [síɲén]

[arósa] > [arósa]

[sakúa] > [sákúa]

[iséna] > [iséna]

[sepíloa] > [θepíloa]

[píʃa] > [písa]

[píʃka] > [píska]

[káʃo] > [kájso]

[jángo] > [sángo]

[pincéla] > [pinθéla]

[oléncero] > [oléntʃero]

[járceko] > [jártʃeko]

[órcak] > [órtʃak]

[arcáɲa] > [arθáɲa]

[eráca] > [erátʃa]

[kótʃea] > [kótʃea]: <tx> (nik egiten dudana baino aurrerago ebakitzen dute)

[etʃéa] > [etʃéa]

- Kasu batzuetan zenbait kontsonanteren ordezkari beste kontsonante batzuk erabiltzen dituzte. Nabarmenena bi ikasleek egiten dutena da, izan ere haur batek <f> kontsonantea <x> kontsonantearekin ordezkatzeko du, hau da [f] ebaki beharrean [x] ebakitzen du, hots, gaztelanian <j> bezala ezagutzen dena. Beste haurrak <r> kontsonantea <d> kontsonantearekin ordezkatzeko du, hau da, [r] ahoskatu beharrean [d] ahoskatzen du. Irakasleak hitza errepikatzeko eskatzen badie, hauek ondo ebakitzen dute baina beraien kabuz egitean ez dute ondo egiten.

Lehenengoaren kasuan joan hitza esateko bakarrik ordezkatzeko dituzte soinuak, gainerako [x] guztiak ondo ahoskatzen ditu. Adibideak:

[joán] > [foán]

[joángo] > [foángo]

[joáten] > [foáten]

Bigarrenaren kasuan, <r> batzuk <d> bihurtzen ditu, baina ez beti, izan ere beste batzuetan ondo egiten baitu. Adibideak:

[egúnkaria] > [egúnkađia]

[beróa] > [beđóa]

[palméra] > [palméđa]

[serúra] > [seđúra]

[béjaren] > [béjađen]

[gojlára] > [gojláđa]

[karámeloa] > [kađámeloa]

Honen arrazoi zehatzik ez dut aurkitzen, pertsonala dela uste dut, hau da, hizkuntzaren ebakeraren garapenean oraindik egokitzen ari direla. Gainera, gelako gazteenetakoak dira biak eta hori nabaria dela uste dut; izan ere ekoizten duten guztia ez dute ulertzen.

Haurrak lau urte baino gutxiago baditu eta hitz egiterakoan soinuak ahoskatzeko arazoak baditu, normala dela esan dezakegu, egoera hau haur hizkuntzaren garapenaren etapa bat baita.

Hizkuntza menperatu bitartean, hurrek ekoizten duten ahoskeran ordezkatzeko egiten dituzte. Hau da, helduen ahoskerako hots edo hots-bilkuren orde, beste batzuk ahoskatzen dituzte. Hizkuntza menperatu ez duen haurraren ahoskerako ordezkatzeko horiek ez dira nolana hikoak izaten, ezta noizbehinkakoak ere, bakoitzaren jabetze aroari dagokio.

- <ll> kontsonantea ahoskatzea zaila egiten zaie eta [λ] soinua ordezkatzeko, [j] edo [il] kontsonanteak erabiltzen dituzte. Haur batzuek modu batera egiten dute eta beste batzuek beste modu batera. Lehendabizikoaren arrazoia, [λ] eta [j] arteko soinuen desberdintasuna ez dutelako ezagutzen izan daiteke eta ingurukoek desberdintasun hori ahoskeran ez dutelako egiten. Ingurukoek egiten ez badute, hurrek ezin izango dute imitatu eta soinua eman.

Bigarrenari dagokionez, hau da [λ] adierazteko [il] ahoskatzearen arrazoia, hau ekoizteko hurbilen duten soinua delako izan daiteke.

Zati teorikoan ikusi dugun bezala, *llabur* eta *Jon* hitzen hasierako kontsonanteen arteko desberdintasuna bakarra da. Lehena albokaria da eta bigarrena ez. Bi hots hauek artikulatorioki eta akustikoki hurbil daude. Albokaria izanik markatuena eta artikulatorioki konplexuena, ulertzekoa da hizkuntzak bat galtzekotan horixe galtzea. (Oñederra, 2004, 64)

Adibideak:

[ολόα] > [ojlóa]

[ολόα] > [oyóa]

[ιλέα] > [iléa]

[ιλέα] > [iyéa]

[κολάρα] > [kojlára]

[tortίλα] > [tortíla]

[tortίλα] > [tortíya]

- Batzuetan kontsonante edo silaba guztiak ez dituzte esaten. Honen arrazoia, hizkuntza oraindik garatzen ari direlako izan daiteke eta egokitzapenean daudelako. Horrelakoak gelako gazteenen artean gertatzen dira, lehenago esan dudak bezala, esaten duten guztia oraindik ez dute ulertzen. Adibideak:

[gίlca] > [gítʃa]

[ðortóka] > [orðóka]

[teléfonoa] > [téfonoa]

- Hitzen elkarketak ez dituzte egiten, hau da, [s] hitzaren amaieran ageri denean eta hurrengo hitzak [ð], [b], [ɣ], [l], [n] denean hauek elkartu egiten dira eta beste modu batera ahoskatzen dira (-z eta *d*- elkartzean > -zt-, -z eta *b*- elkartzean > -zp-, etab.). Gurasoak bizkaitarrak dituen haurrak soilik ahoskatzen ditu modu honetan. Honen arrazoia, etxean horrela egiten diotelako izan daiteke eta honek entzundakoa imitatzen duelako. Adibideak:

[éstugu] > [és ðugu]

[éskara] > [és gara]

[énajs] > [és najs]

[éstakit] > [éstakit]

[éstut] > [éstut]

[éstago] > [és ðago]

[éstago] > [éstago]

[éstu] > [éstu]

- Oro har, ez dituzte hitzak laburtzen, bizkaitarra den haurrak izan ezik, etxean gurasoek horrela egiten diotelako eta berak ondoren imitatu egiten duelako izan daiteke. Gainerakoek hitza irakurtzen den bezala ahoskatzen dute.

Adibideak:

[beár] > [bár]

[begíra] > [bíra]

- Hurrek elkarri imitatzen diote eta gelan bizkaitar bat izateak badu eragina. Hitz guztietan ez bada ere, batzuetan imitatzen saiatzen dira eta aditzak modu honetan ahoskatzen dituzte:

[bájno] > [bíno]

[senúela] > [sijnúela]

[genúen] > [gijnúen]

[senútela] > [sijnúela]

- Azentuari dagokionez, batzuek ohikoa ez den leku batean jartzen dute. Gaztelaniaren eredu fonologikoa dago azpian, izan ere gaztelanian normalean azentua azken aurreko silaban jartzen da. Adibideak:

[kót]ea] > [kot]éa]

[faltá ðirá] > [fálta ðirá]

[paséatu ðut] > [paseátu ðut]

[kenðú ðit] > [kénðu ðit]

[oréla egin ðut] > [órela egin ðut]

[tʃiméleta] > [tʃímeleta]

[betáwrekoak] > [betawrékoak]

[piístóla] > [pístola]

[egúnkaria] > [egunkária]

[bustána] > [bústana]

[diruá] > [dírua]

Lehenago aipatu dudan bezala, hurrei egindako probetako batean, argazki batzuk erakutsi nizkien eta hurrek argazkian ikusten zutena azaltzen saiatu behar zuten. Ikasle hauek bost eta sei urte dituzte eta guztira bederatzi haur dira, bost neska eta lau mutil. Batzuen lehen hizkuntza euskara da, besteena gaztelania eta elebidunak ere badaude. Banakako proba honekin haur bakoitzak soinuak nola burutzen dituen ikusi nahi nuen.

Proba egiteko erabilitako hitzak: *behatza, izotza, ontza / isatsa, itsasoa / txakurra, txokolatea, tximeleta / zezena, zapata, zopa / txoria, zerua, liburua / belarria, izarra, sudurra / sagua, xango / kanpaia, panpina, kandela, danborra / giltza, galtzerdia / ilea, tortilla / dentista, dirua, dortoka / farola, farmazia / pijama, jertsea / urdina, sorgina / botoia, behia, lehoia. Oharra: Xango haurren gelako maskota da.*

1. *haurra*: Bost urte dituen neska da, gelako gazteenetakoa da eta lau hizkuntza ikasten ari da. Etxean euskaraz eta katalanez egiten diote baina erdara ere ondo menperatzen du eta ikastolan ingelesa ikasten ari da.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[isóca] > [isótʃa]

[sapáta] > [θapáta]

[ʃagúa] > [sagúa]

[gílca] > [gíltʃa]

[iiléa] > [iléa]

[tortíla] > [tortíya]

[faróla] > [falóla]

2. *haurra*: Bost urteko mutila da, bere lehen hizkuntza eta bere inguru guztia erdalduna da eta euskarako eredu bakarra irakaslea bera da. Gelako gazteenetakoa da eta oraindik euskarara egokitzen ari da. Esaten duen guztia ez du ulertzen eta hau erakutsitako zailtasunetan islatzen da.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[beáca] > [beátja]

[isóca] > [iśótja]

[ónca] > [óntja]

[seséna] > [śeséna]

[sapáta] > [θapáto]

[serúa] > [śerúa]

[isára] > [iśára]

[jaǵúa] > [śaǵúa]

[gílca] > [gíltja]

[iléa] > [iléa]

[tortíla] > [tortíya]

[galcérðia] > [galtjérðia]

[faróla] > [falóla]

3. *haurra*: Bost urteko neska da eta gelako gazteenetarikoa da. Etxean erdaraz egiten dute baina bere anai-arrebek ikastolan ikasten dute eta euskaraz badakite.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[sapáta] > [θapáta]

[jaǵúa] > [śaǵúa]

[ʃángo] > [sángo]

[galcérðia] > [galtʃérðia]

[iiléa] > [iyéa]

[tortíla] > [tortíya]

4. *haurra*: Sei urteko neska da eta bere lehen hizkuntza euskara da. Etxean denek euskaraz egiten dute eta gurasoak irakasleak dira.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[ʃagúa] > [sagúa]

[iiléa] > [iléa]

[tortíla] > [tortíya]

5. *haurra*: Bost urteko mutila da eta bere lehen hizkuntza euskara da. Gurasoak etxean euskaraz egiten dute. Aita bizkaitarra da eta hau haurraren hizkeran nabaria da.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[sapáta] > [sápáta]

[tortíla] > [tortíya]

6. *haurra*: Bost urteko mutila da. Etxean aitak erdaraz egiten du eta amak berriz euskaraz, ama Leitzakoa da.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[beáca] > [beáca]

[ónca] > [ónca]

[sapáta] > [sápáta]

[iiléa] > [iyéa]

[tortíla] > [tortíya]

7. *haurra*: Sei urteko neska da eta gelako helduena da. Bere lehen hizkuntza erdara da. Etxean gurasoek eta bere ingurukoek erdaraz egiten dute. Bere euskarazko eredu bakarra irakaslea da.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[ʃagúa] > [sagúa]

[ʃángo] > [sángo]

[iiléa] > [iléa]

[tortíla] > [tortíya]

[jercéa] > [jerséa]

8. *haurra*: Sei urteko neska da. Gurasoak bananduta daude eta amak nahiz amaren ingurukoek erdaraz egiten diote eta aitak nahiz aitaren ingurukoek euskaraz.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[iiléa] > [iyéa]

[tortíla] > [tortíya]

[jercéa] > [jerséa]

9. *haurra*: Bost urteko mutila da eta etxean gurasoek euskaraz egiten dute. Anaiak ere ikastolan ikasten du eta euskaraz mintzatzen da.

Zailtasunak izandako hitzak hauek dira:

[iiléa] > [iyéa]

[tortíla] > [tortíya]

1.8. Fonetika lantzeko proposamenak

Hitzen egitura fonikoaren analisisian trebatzea ezinbestekoa da, irakur-idazmenaren teknikak ikasten diren bitartean edo ikasten hasi aurretik, batez ere haur eta lehen hezkuntzan. Hitzen soinuaren analisi hori baliagarria da irakur-idazmeneeko prozesua berandu hasi duten ikasleentzat ere.

Jolasak garrantzi berezia du haurren garapen faktore gisa, eta lagungarria da hurrek ekimenak izan ditzaten eta gizarte esparru batean integratzeko gai direla ohart daitezen.

Materiala, bereziki alde fonologikoa lantzeko sortua izan arren, hizkuntzaren beste aldeak lantzeko ere erabil daiteke. Honela, irudi eta marrazkiak baliagarriak izan daitezke hiztegia zabaltzeko eta metahizkuntzako jolasak egiteko (alde semantikoan), esaldiak osatzeko (morfosintaxia) eta jolasaren bitartez ahozko hizkuntzaren erabilpena lantzeko (alde pragmatikoa).

Materialaren deskribapena eta erabilpena:

Materialak ibilbide fonetiko desberdin asko proposatzen ditu. Ibilbide bakoitzak fonema jakin bat lantzen du.

Hainbat ariketa egin daitezke kontzientzia fonologikoaren garapena suspertzeko. Eduki-segidari dagokionez, umeen garapen fonologikoaren prozesu naturala errespetatu behar da. Horretarako ondoko datu hauek kontuan izan behar dira.

0-12 hilabete: Ahoskatze aurrelinguistikoak eta pertzepzioa izaten dira.

12-18 hilabete: Lehen 50 hitzen fonologia ikasten da.

18 hilabete-4 urte: Hizketako soinuen hedapena burutzen da.

4-7 urte: Garapen fonologikoaren amaiera, soinu konplexuen ahoskatzea, hitz sinpleen ahoskatze zuzena eta hitz luzeagoen erabilpenaren hasiera izaten da.

Materialaren erabilerak honako hauek izan litezke:

- Kontuan izanik umeen garapen fonologikoa Haur Hezkuntzan nagusitzen dela, urte horietan garapen hori suspertzeko egin daitezkeen jolasak eta ekintzak garrantzi handikoak direla esan genezake.
- Ahoskera arazoak dituztenentzat ere erabilgarria izan daiteke: umeak soinuen ahoskera zuzena lortu ondoren, bere hizkuntza naturalean barneratzeko.
- Arazo fonologikoak dituztenentzat ere: arazo fonologikoen oinarria bereizketa fonologiko desegokian datzanez, kontzientzia fonologikoa garatzeko erabiliko genuke.

Erabiliko den materiala:

28 lamina fonetiko, koloretako fitxak, fonemen hitz zerrenda, dadoak.

“A” dadoa:

1: irudi bat aurrera

2: bi irudi aurrera

3: hiru irudi aurrera

(Mamuaren irudia): atzeko irudien izen guztiak esan

(Karramarroaren irudia): irudi bat atzera

(Burezurraren irudia): berriro hasi

“B” dadoa:

(Karramarroaren irudia): pauso bat atzera

1: irudi bat aurrera

2: bi irudi aurrera

2: bi irudi aurrera

3: hiru irudi aurrera

3: hiru irudi aurrera

Jolasteko arauak:

Jokalariek fitxa bana daukate, eta dadoan irteten dena bete behar dute, ibilbidea jarraituz. Irudi batera heltzean, irudiaren izena ahoskatu behar dute. Mugara lehenengo iristen dena irabazlea izango da.

Lamina bakoitzean pertsonaia bat errepikatu egiten da, irudi batetik hurrengora salto egiteko. Berorietan eroriz gero, dadoa berriro bota beharko dute (adibidez: elefantetik elefantera eta berriro bota).

- Behiaren laminaren jolasean erabilitako *hitzak*: autobusa, kalabaza, habia, baloia, begia, balea, botoiak, bota, botila, liburua, biolina. ([b] soinua)

- Igelaren laminaren jolasean erabilitako *hitzak*: ogia, sugea, gazta, gailetak, sagua, eguzkia, begia, gaztelua, gozokia, gezia, gereziak, gerrikoa, gona, gizona, sagarra, garia. ([g] soinua).
- Katuaren laminaren jolasean erabilitako *hitzak*: koilara, kopa, foka, euritakoa, gozokia, kalabaza, txokolatea, komuna, eskua, soka, kapela, lapikoa, kometa, kamioia, kea, kaiola. ([k] soinua).
- Soinu bakoitzeko lamina bat izango genuke.

Lamina hauek nolakoak diren ikusi ahal izateko, eranskinetan bi adibide daude.

Olerkiak

Helburua hitzekin jolastea da beraz olerkiak ikasleekin lantzea aproposa izan daiteke.

Modu honetan, errimak ezagutuko dituzte, hiztegia ezagutuko dute eta hizkuntza erabiliko dute, hitzekin silabak landuko dituzte, fonetika landuko dute, etab. Olerki bakoitza soinu desberdin bat lantzeko erabil daiteke.

Ondoren adibide gisa, hainbat olerki erakutsiko ditut:

Zulo, zulo, zulo txo,

ziza, zi, zizaretxo.

Sagarra janez gero,

zer jan amonatzox?

Ziza, zi, zizaretxo.

Tza, tza, tza, pasatzen dut erratza.

Tze, tze, tze, nire gela garbitzen.

Tzi, tzi, tzi, amantala dut jantzi.

Tzo, tzo, tzo, zikindu nintzen atzo.

Tzu, tzu, tzu, orain garbi zaitez zu!

Txepetxa, txepetxa,

txori txikia,

txip, txip,

zuhaitzean.

Txepetxa, txepetxa,

kokots txikia,

etor zaitez hegan.

A, a, a, asko maite dut ama.

E, e, e, umeak hemen gaude.

I, i, i, ikastolan ikasi.

O, o, o, ohean egin dut lo.

U, u, u, oilarrak kukurruku.

Hurrekin soinuak lantzeko *aho-korapiloak* ere erabil daitezke eta gelan denen artean landu daitezke. Ondoren azaltzen dena aho-korapilo antzekoa da eta zurrungaren zarata edo hotsa imitatzeko [r] asko erabiltzen da:

Zirrin-zorron

zirrin-zorron

karrue-karrue

arre-arre

kon-kon!

Zirrin-zorron

zirrin-zorron

karrue-karrue

arre-arre

kon... grrrrrr zzzzzz!!!!!! (zurrunga hotsa)

Zerron-zerron

zerron- zerron

marrue-marrue

arre- arren

ton-ton!

Zerron-zerron

zerron- zerron

marrue-marrue

arre- arren

ton...grrrr zzzzzz!!!!!! (zurrunga hotsa)

Ipuinak

Eskola garaian entzundakoaren ulermena lantzea ezinbestekoa da. Kontakizunei esker haurrek hiztegia aberasten dute eta hizkuntzaren ulermena eta adierazpena garatzen dituzte. Ipuinak kanpoko mundua azaltzeko eta ulertzeko tresna bezala ere balio du, baita sentimenduak interpretatzeko, esperientzia adierazteko eta gizartea kritikatzeko baliabide bezala ere. Ipuina haurren garapenean aukeraz betetako kutxa da, hala nola irudimena, fantasia, gozamena eta sentikortasuna, sendotzeko eta indartzeko bidea da. Era berean, errealitatearen eta ametsen arteko oreka lortzeko oinarria eskaintzen du. Ipuina haurtzaroko bizitzan funtsezkoa da eta haurren etorkizuneko garapenean garrantzi handia du.

Umeei ikasteko baliabide bezala imitazioa erabiltzen dute, beraz irakaslearen paperak garrantzi handia du. Irakaslea eredu egokia izan behar da eta ebakera garbia erabili behar du. Azentuak ondo markatu behar ditu, soinu guztiak behar bezala ekoiztu behar ditu, mintzamen-erritmo egokia erabili behar du, etab.

Ahazkotasuna kontaktaren bidez lantzeko, irakasleak modu askotako ipuinak landu ditzake. Ahoskerari erreparatzen badiu gelako edozein kontakizun erabil dezake fonetika lantzeko. Onomatopeiak edo soinuen imitazioak dituen liburuak erabil ditzake, haur hizkeraren barruan oinarritzkoenak baitira. Zati teorikoan ikusi dugun bezala, urte bat eta

birekin, haurrek hitz ezagunen ahoskapen zuzena egiten dute eta horretarako zenbait sinplifikatze estrategia erabiltzen dute, hau da, lehen kontsonantearen errepikapena erabiltzen dute. Mota honetako kontakizuna hurrengo hau izan daiteke:

Oilarraren katarroa

Bazen behin baserri bat mendixka baten magalean; baserri horretan, hainbat animalia bizi ziren. Nekazaritza-giro ederrean bizi ziren poz-pozik, eta, goizero, oilarrak kukurruku egiten zuenean esnatzen ziren.

Baina, egun batean, ez zuten oilarra entzun, eta gainerako animaliak arduratzen hasi ziren.

- Uauuuuu, uauuuuu... non dago oilarra? – esan zuen txakurrak.
- Miauuuu, miauuuu... ez dakit. Gaur goizean ez dut haren kanturik entzun. Zaldiari galdetuko diogu ea badakien zer gertatu den.
- Uauuuuu, uauuuuu... zaldi jauna, ba al dakizu oilarra non den? – galdetu zion txakurrak.
- Iijijijiji, iijijijiji... ez dakit. Gaur goizean, oilarra entzun ez dudanean, arduratu egin naiz. Begira, hor doa txita. Galdetuko al diogu berari?
- Uaauuuuu, uaauuuuu... egunon txitatxo, ba al dakizu zure aita oilarra non den? – galdetu zion txakurrak.
- Pio-pio-pio-pio... gaixorik dago, eta etxean dago amarekin. Horregatik ez du kukurrukurik egin gaur.

Orduan, animalia guztiak oiloaren eta oilarraren etxera abiatu ziren.

- Tak-tak –jo zuten atea.
- Kakaraka! Kakaraka! Nor da?
- Geu gara, eta oilarrari zer geratzen zaion galdetzera etorri gara – erantzun zuten batera.
- Kakaraka! Kakaraka! Sartu, sartu. Oilarrak katarroa harrapatu du, eta horregatik ez du kukurrukurik egin.
- Aaaatxiss! Aaatxiss! Tuju-tuju! – egin zuen oilarrak.

- Xarabe miragarri bat ekartzera etorri gara. Eutsi eta edan, eta horrela, arinago sendatuko zara.
- Glu-glu-glu –edan zuen oilarrak eta orduan...
- Kukurruku! Kukurruku!

Handik aurrera oilarra ez zen berriro gaixotu, eta egunero animalia guztiak pozaren pozez esnatzen ziren, oilarraren kantua entzutearekin batera.

- Kukurruku! Kukurruku!

Eta hala bazan edo ez bazan, sartu dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.

Irakasleak soinu zehatz batzuk landu nahi baditu hitz desberdinak aukeratu ditzake eta horiekin kontakizun sinple bat sor dezake. Kontakizunean hitz hauek errepikatuko egingo dira eta hitz joko bat sortuko da. Honen adibidea hurrengo kontakizuna izan daiteke, bertan [č] edo [tʃ], [c], [s], [r] eta [r] soinuak landu nahi dira.

Dendako saguaren ipuina

Behin batean, sagutxo bat denda batean sartu zen gauez. Bertako janari guztiak usaindu zituen: gereziak [gerésiak], arrautzak [aráuak], saltxitxak [saltʃítʃak], gazta [gásta], sagarrak [sagáarak], intxaurreak [intʃáurak] eta azenarioak [asénarioak].

Beste ezer baino lehen, atzeko hanka gainean eseri eta buztantxoa airean astindu zuen. Gero, pozez zorutzen, txistu egin zuen. Nondik hasi? horixe zen kontua.

Gereziak jatea erabaki zuen, baina... hain zegoen arrautza usain gozoa alde batean eta hain gazta usain gozoa bestean!

Gazta jatea erabaki zuen, baina alde batean hain zegoen saltxitxa usain gozoa, eta hain sagar usain gozoa bestean!

Sagarra jatea erabaki zuen, baina alde batean hain zegoen intxaur usain gozoa, eta hain azenario usain gozoa bestean!

Sagutxo gizajoa alde batetik bestera zebilen. Ez zekien nondik hasi jaten.

Eguna argitzen hasi zen, eta dendara jendea sartu zen. Eta sartu orduko, sagutxoa kanpora bota zuten. Orduan sagutxoak haserre bizirik zera esan zien beste saguei:

“Ez naiz berriro denda horretara joango. Jaten hasitakoan, bota egiten zaituzte!”.

Fonetika lantzeko haur liburuak ere aurki daitezke. Hitzez hitz eta letraz letra, fonema guztiak modu atseginean eta alaian ikasteko era ezin hobea bezala erakusten dizkigu Ibaizabal argitaletxeak (2009) argitaratutako liburuak. Fonema bakoitzeko liburu bat dago eta hemen erakutsitakoa horietako biren adibidea da:

24. alea: Zorion Zoriontsua (z)

Zorion zoriontsuak zapata berriak erosi zituen Zamudion. Zorionek ziklomotor zaratatsuan eraman zuen Zigor zezen-plazara. Mutil zintzoa dugu Zorion. Zebra koloreko ziklomotor zuri-beltzean joan zen Zorion Azuzenaren etxera zizak bazkaltzera. Zizak jan eta ziklomotorrean paseoa eman zuten. Azuzena zorabiatu egin zen ziklomotor zaharrean. Azuzenak zinta zuri bat zeraman buruan, ziklomotorrean igo aurretik. Zintak hegaz egin zuen. Azuzena eta Zorion zerura begira geratu ziren, ea zinta zuria ikusten zuten. Zozoa ikusi zuten. Mokoan zeraman Azuzenaren zinta zuria.

23. alea: Xixilio xelebrea (x)

Xixilio xelebrea da. Xixilio Muxikan bizi da. Xixilio eta Xanti lagunak dira. Xake jokoan ibili dira. Oker xamarrak dira Xixilio eta Xanti. Xakelari bikote honek txorixo xafla bana hartu dute, eta jarraian muxikak jan. Xarma handiko mutilak dira. Xilofonoa eta saxofoia jotzen dituzte. Muxikako mutil xelebrea dira Xixilio eta Xanti.

2. DISLALIA 2

2.1. Zer da dislalia? 2.1

Haur hezkuntzan gertatzen den hizkuntza arazo arruntena eta ohikoena da, baita gurasoek edota irakasleek identifikatzeko errazena ere. Normalean hiru eta bost urte bitartean azaltzen den arazoa da eta hitzen ahoskatze arazoan datza.

Arazoen artean maila bat baino gehiago daude, batzuen pronostikoa besteena baino hobea da. Arazo larriak dituenari, tratamendu egokia eta goiztiarra ezarri behar zaio. Bestela, nortasunean, komunikazio gaitasunean, egokitzapen sozialean eta eskolako errendimenduan arazo larriak izan ditzake.

Fonemen ahoskeran izaten diren arazo gehienak, hitz egiteko erabiltzen diren organoen nahasteengatik gertatzen dira (ezpainak, mingaina, ahosabaia).

Haur batek hitz egiterakoan mintzairak dituen hitzen soinuak ondo ahoskatzeko gai ez dela ikusten denean, dislalia diagnostikatzen zaio, bere adin eta garapenerako gaitasunak eskuratuak dituela ikusten bada. Dislalia duen haur batek hitzak gaizki ahoskatzen ditu, hitz baten ordeztan beste bat erabiltzen du edota kontsonanteak ez ditu ahoskatzen.

Haurraren garapena aurrera doan heinean, adinari dagozkion hitzak barneratzen hasten da. Haurra hazten den bitartean, ahoskatu beharreko letren zailtasuna areagotuz joango doa eta haurrak ahoskera egokia izateko, aho muskuluen esfortzua handiagotu beharko du.

Haurrak zortzi hilabetetik hemezortzi hilabete bitartean esaten dituen lehen hitzak akatsez beterik egoten dira, baita haurra hitzen ahoskera eskuratzen hasten den momentuan ere (adb. Pete esatea txupetea eskatzeko). Haurren joera hitzen ahoskera erraztea da.

Hala ere, haurrak soinuak ematen trebatzen diren heinean, ahoskera azkartzen eta egokitzen dute. Prozesu hau normaltasunez gertatzen ez denean eta haurrak lau urtetatik aurrera eskuratuak izan beharko lituzkeen hitzen ahoskeran akatsak izaten jarraitzen duenean, dislalia duela esaten has gaitzke.

Dislalia nahaste fonologiko batekin nahas daiteke baina dislalia, mugimenduen koordinazioan eta mugimenduen eskeman izaten diren akatsak dira. Nahaste fonologikoaren arazoa berriz, entzumen bereizketan eta fonemen denbora tratamenduan gertatzen da, hizkuntzaren hitzekin erlazonatutako sekuentzia baten barruan (adibiderik ohikoenak: silabak eta fonemak ez esatea, metatesia edo fonema batzuen ordena aldatzea eta ordena silabikoa aldatzea “tefoleno” esatea “telefono”-ren ordeztan).

2.2. Dislaliaren jatorria

Hainbat gauza hartu behar dira kontutan, adibidez pertsona bakoitzaren aurrekariak. Honekin batera trebetasun motorraren urritasunak ere eragina izan dezake, malformazioarekin zerikusirik ez duena. Mintzamen organoen koordinazioan “traketsa izatea” bezala uler daiteke. Kirolerako edo mugimendurako batzuk trebeak ez diren bezala,

fonazio mugimenduekin ere gauza bera gertatzen da. Zailtasun hau, gehiegizko tentsioak edo honen gutxitzeak eragin dezake. Bestetik denbora eta espazioaren pertzepzioetan zailtasunak izateak dislaliaren jatorrira eraman gaitzake. Honek entzumenezko segida hautemateko gaitasunean eta soinu bat ahoskatzerako garaian egiten diren mugimenduak antolatzekeko gaitasunean eragiten du. Gainera entzundakoa bereizterakoan gertatzen den atzerapenak ere eragina izan dezake. Haurrak soinu desberdinak ezingo ditu imitatu, guztiak berdin hautemango dituelako. Haurraren izaten den hutsegite bat izango litzateke. Haurrak ondo entzuten du baina entzundako fonema horiek gaizki aztertzen edo integratzen ditu. Gorputz eskemaren jabetze prozesuan zailtasunak izaten direnean ere gerta daiteke. Haur batzuei adierazitako gorputzeko zatiak aurkitzea asko kostatzen zaie. Fonemak ahoskatzekeko garaian ere kontutan izan behar da ezpainak, mingaina, etab. non kokatzen diren. Arreta arazoak dislaliarekin erlazionatzen dira, nahiz eta dislaliaren jatorri zuzena ez izan. Era berean ingurunearen alderdiak ere eragina izan dezake. Haurraren garapenean inguruko alderdiak garrantzi handia du baita bere garapen pertsonalean ere. Alderdi hauetan, familia giroa, kultura maila, gizarteratze arazoak aipa daitezke. Alderdi psikologikoak eragin dezake. Gurasoek haurrak babesteko ezarritako mugen gehiegikeria edo guztiz kontrakoa, hau da, mugak ez jartzeak, haurraren ahoskeran eragin dezake. Alderdi hereditarioak kalte egin dezake. Azkenik entzumenezko eta ikusmenezko oroimenen gaitasunean errendimendu gutxi izateak eragina izan dezake, baita geroago gertatzen den integrazioan ere.

Adimen urritasuna, mintzamenean izaten den atzerapena, hizkuntzan gertatzen den atzerapena ... bigarren mailako sintomak dira.

2.3. Dislalia motak

Hiru mota desberdinetan sailka dezakegu: organikoa, audiogenoa eta funtzionala.

Dislalia organikoa: Haurrak ahoskatzekeko arazoak ditu eta hau bere mintzamen organoetan arazo bat duelako izan daiteke. Adibidez, aho sabaian, ezpainetan, mihian eta abarretan izaten diren malformazio edo anomalia anatomikoen eraginez. Beste arrazoi bat haurraren arazo edo gaixotasun batengatik izan daiteke, esate baterako, bere neuronetan edota sistema nerbioso zentralean izandako arazoak (garun paralisia, Down sindromea,

etab). Hitzen artikulazioa hobetzeko eta arazoa duten organoak lantzeko logopedarengana jo beharko du.

Dislalia audiogenoa: Entzumenean izaten diren arazoak dira. Haurrak ezin ditu hitzak ondo ahoskatu ez baititu soinuak ondo entzuten eta artikulazioan antzekoak diren hitzen soinuak nahasten ditu. Kasu batzuetan beharrezkoa izango da haurrak protesia erabiltzea, soinuak zehaztasunez entzun ditzan. Honen erabilera beharrezkoa den ala ez, otorrinolaringologoak esaten du. Ondoren logopedak lagunduko du letren arteko diskriminazioa lantzen eta artikulazioa hobetzen.

Dilaslalia funtzionala: Hau da ohikoena eta ezagunena, malformazio edota arazo anatomikorik ez duena. Arazoa haurrak hitz egiterakoan erabiltzen dituen organo periferikoen erabilera desegokian datza. Haurrak ez dauka inongo arazorik, baina zenbait organo ez ditu leku egokian kokatzen, hala nola mihia, ezpainak, etab. Honek zenbait soinuen deformazioan eragiten du, ezagunenak [r] gaizki esatea, [ś] soinua [s] bihurtzea eta gaizki ahoskatzea, [k] soinua [t] soinuarekin ordezkatzeta, [r] soinua [ř] bihurtzea... dira. Haur hezkuntzan ohikoenak diren arazoak [ś], [s] eta [r] soinuekin gertatzen dira.

2.4. Trataera

Landu beharreko alderdiak hauek dira:

- Arnasketa
- Erritmoa
- Praxiak (mihia, ezpainak, masailezurra)
- Entzumenaren bereizketa
- Arreta eta oroimena
- Denborazko ariketak: denbora – espazioa
- Psikomotrizitatea
- Erlaxazioa

2.5. Berreziketa

Haurrengan maiz ikusten den arazoetako bat hainbat fonemaren okerreko ahoskatzean datza. Hala ere, akats hauen zuzenketa gehienetan erraza izaten da. Berreziketa eraginkorra izateko sistematikoa izan behar da. Haurrak burutu beharreko ariketei, egunero hamar minutu eskaini beharko dizkio.

Ahoskuntzan izaten diren zailtasunak hainbat arrazoiengatik izan daitezke. Aurre egiteko errazenak dislalia ebolutiboa eta dislalia funtzionala dira. Garapenarekin batera desagertzen diren lehen ahoskuntza arazoak dira. Dislalia funtzionalak eskola garaian irauten du eta normalean psikomotrizitate heldutasun edo garapen ezarekin eta espazio denboraren pertzepzioen eta entzumenezkoen bereizketaren zailtasunekin zerikusia du.

Dislaliaren berreziketa egiteko, soinu berari dagozkionak badira ere, ariketa desberdinak erabiltzen dira.

Haurrak non huts egiten duen baldin badaki bere burua zuzendu ahal izango du baina kanpotik zuzentzen bazaio, ez du ikusiko akatsa non dagoen eta bere eskema fonologikoa antolatzea zaila egingo zaio. Ondorengo taula hau haurrak huts egiteak non egiten dituen ikusteko da. Akats horien arabera, ariketak antolatuko dira.

Taula 2. Huts egiteak ikusteko taula

	Ondo	Gaizki
Ahokaria / Sudurkaria		
Artikulagunea		
Lateralitatea		
Iraupena: Motza/Luzea		
Tentsioa: Ahoskabea / Ahostuna		

Bokaletan arazoak izatea ez da ohikoa baina horrela izanez gero, mingainaren goratze handiena eta txikiena, ezpainen irekitze handiena eta txikiena, eta mingainaren aurrera eta atzerako mugimenduak erakutsi behar zaizkio arazoa zuzendu ahal izateko.

Ariketen sekuentzia

1. Egunero ahoko nahiz aurpegiko ariketak egingo dira (mingaina, ezpainak, masailezurra) eta ariketa bakoitzak hamar minutuko iraupena izango du.
2. Lehendabizi fonemak ahoskatuko dira eta ondoren bokalak gehituko dira:
 - Lehendabizi bokal bakoitzarekin (adibidez: *da, da, da, ..., de, de, de*)
 - Ondoren bokalak txandakatuz (adibidez: *da, de, da, de, ...*)
 - Diptongo bakoitzarekin (adibidez: *dai, dai, ..., dei, dei*)
 - Diptongoak txandakatuz (adibidez: *dai, dei, doi, dau, deu*)
 - Ondo ahoskatzen dituen fonemen silabak (adibidez: *date, daba, ...*)
 - Hitzaren hasieran bokalak jarrita (adibidez: *ada, ada, ..., ade, ade*)
 - Ondo ahoskatzen dituen fonemen silabak, hitzaren hasieran jarrita (adibidez: *tapa, pipa, lupa, etab.*)
 - Bi eta hiru silabako hitzak.
 - Bokalez hasten diren silaben azken letra banandu, hauek alderantzizko silabak izan arte (adibidez: *ada, ada, ad..a, ad...a, ad....a, ...*)
 - Beste fonema batzuk dituzten silabak ahoskatu (adibidez: *tad, fad, mad, dad, etab.*)
 - Silaba mistoak dituzten bi silabatako hitzak ahoskatu (adibidez: *katu, koska, txerri*)
 - Silaba anitzeko hitzak ahoskatu.

Ariketa bat ondo egin arte hurrengora ez pasatzea gomendatzen da. Ariketa hauek gela osoak landu ditzake jokoan bidez. Grafemak ikasteko garaian ere, fonemen posizio egokiak errespetatzea ezinbestekoa da.

2.6. Behaketa pertsonala

Zati teorikoa ikusi eta gero, eta dislaliaren inguruan gehiago jakin ondoren, haur hezkuntzako bost urtekoen gelan nengoela, bi dislalia mota ikusi ditut.

Ikasleetako batek sei urte dauzka eta [r] ahoskatzeko garaian zailtasunak ditu. Lau urte zituenetik logopedarengana joaten da baina nik ez dut horren berri. Logopedarekin zer egiten duen, garapenik izan duen edo ez, ez dakit.

Gelan guztiei eginiko probetan, ikasle honek ere parte hartu du. Ahoskerari erreparatzeko eginiko proba hauetan, argazki desberdinak erabili nituen eta haurrei bertan ikusten zutena azaltzeko eskatu nien.

Teorian esan bezala, soinuen ahoskeran gertatzen diren arazo gehienak, hitz egiteko erabiltzen diren organoen nahasteengatik izaten dira (ezpainak, mingaina, ahosabaia). Haur honen kasuan, arazoa, hitz egiterakoan erabiltzen dituen organo periferikoen erabilera desegokian gertatzen dela ikusi nuen, hain zuzen ere, mihiaren kokalekuan.

/r/ dardarkaria da, mihi puntako hobikaria. Dardararen indarrari dela eta, [r] dardarkari anitza eta [r] ttak-a bereizten dira. Fonema honen ahoskeraren zailtasunari errotazismo deitzen zaio.

[r] anitza ahoskatzeko garaian, mingainaren erresistentziak, mingainak berak aurkezten duen erresistentziagatik atzera hasierako lekura itzultzen da eta azkartasun handiz mugimendu bera errepikatzen da. [r] bakuna ahoskatzea errazagoa da, izan ere, mingainean tentsio gutxiago behar du.

<r> fonemaren berreziketarako egin beharreko ariketetako bat, hurrengo hau da: [r] bakuna, [d] edo [l] soinuetatik bereizteko eta honen pertzepzioa handiagotzeko, [r]-ren iraupena ahal den gehiena luzatu, baina [r] anitza egitea eskatu gabe: adibidez, ArrrrrA.

Dardarkari hauek garapenaren momentu desberdinetan ematen dira, hau da, <r> hiru urtetan azaltzen da eta <r> bost urtetan. Horregatik berreziketa noiz egin jakin behar da. <r> ahoskatzearen zailtasuna larria bada, honen berreziketa haurra gaztea denean hasiko da.

Dislalian izaten den zailtasun ohikoena, [r] bakuna edo anitza [l] fonema bihurtzea da. Gelako haur honek [r]-ren orde ez du [l] ahoskatzen, baina mihia [l] ahoskatzeko eramaten den lekuan, hau da hortz-hobietan kokatzen du.

Beste haurrak bost urte dauzka eta [s] soinua [θ] bihurtzen du, hau da, gaztelaniako <z>. Haur honen kasuan, arazoa, hitz egiterakoan erabiltzen dituen organo periferikoen erabilera desegokian dago, mihiaren kokalekuan hain zuzen. Izan ere, [s] ahoskatzean mihia hortz artean kokatzen du.

Oraindik ez da logopedarengana joan baina irakasleak horren beharra ikusten ari dira, izan ere soinu ordezkatzeko hau [s] duten hitz guztietan burutzen da.

Haurrak lau urte baino gutxiago baditu eta hitz egiterakoan letrak ahoskatzeko arazoak azaltzen baditu, normala dela esan dezakegu, egoera hau haur hizkuntzaren garapenaren etapa bat baita. Haurra gaztea deneko etapa honetan, hau da lau urteak arte, logopedaren tratamendurik ez da behar, ahoskera akats hauek ez baitira patologikotzat ematen, bere hizkuntzaren heldutasun prozesuko lehen ataltzat baizik.

Mintzairan ahoskatze arazo hauek lau urteetatik aurrera jarraitzen badute, umeak logopedarengana jo beharko du, honek balorazio bat egin dezan, haurrak dislalia duen ala ez jakiteko. Erantzuna baiezkoa bada tratamendurekin lehenbailehen hasiko da, eta eredu egokia ezarri. Hau, ordea, dislalia funtzionala bada gertatuko da.

Beste bi dislalia motetan, hau da, dislalia organikoaren edota audiogenoaren kasuetan, haurrak medikuaren kontrola izan beharko du, honek kasua lehenbailehen logopedarengana biderra dezan. Haurrak entrenamendua beharko du eta horretarako logopedarengana zuzentzea ezinbestekoa izango da.

Haur honen zailtasunak hitz hauetan izan dira:

[erðáras] > [erðéraθ]

[és] > [éθ]

[isáten] > [iθáten]

[seséna] > [θeθéna]

[kóntus] > [kóntuθ]

[egúskia] > [egúθkia]

[sapáta] > [θapáta]

[sijnén] > [θijnén]

[iséna] > [iθéna]

[arcána] > [arθána]

[senúen] > [θenúen]

[serúa] > [θerúa]

[isára] > [iθára]

[iðásle] > [iðáθle]

[sará] > [θará]

[esín] > [eθín]

[salǵía] > [θalǵía]

[gáwsak] > [gáwθak]

[orásia] > [oráθia]

2.7. Proposiciones para trabajar la dislalia

La articulación defectuosa de determinados fonemas va a ser uno de los problemas más frecuentes que nos vamos a encontrar en los alumnos de preescolar. Estos alumnos deberán realizar gimnasia linguo-vocal y para ello podemos encontrar varias actividades, como por ejemplo:

- Actividades de soplo: soplar primero sin inflar las mejillas, después inflándolas; soplar sobre la mano, primero fuerte, luego flojo; soplar sobre el flequillo o la frente para que pueda percibirlo; juntar los labios y emitir el soplo por un pequeño orificio; suspender una tira de papel frente a la boca y soplar sobre ella (ir alejando el papel progresivamente); esparcir trocitos de papel en un espacio pequeño y hacerlos volar de un soplo; realizar carreras de soplo con pelotas de ping-pong.
- Actividades labiales: abrir y cerrar la boca como si bostezara; apretar y cerrar los labios sin abrir la boca; Sonreír sin abrir la boca; sostener un objeto poco pesado (por ejemplo, una hoja) solo con los labios; inflar las mejillas y apretarlas con las manos haciendo una explosión; chasquear los labios con el sonido de un beso;

zumbido de labios imitando el sonido del avión; vibrar los labios imitando el sonido de una moto; resoplar.

- Actividades lingüales: sacar y meter la lengua lo más rápidamente que se pueda; sacar la lengua poniéndola lo más ancha posible, relajada; doblar la punta de la lengua hacia arriba intentando tocar la nariz; doblar la punta de la lengua hacia abajo; llevarla de un extremo a otro con rapidez; contar los dientes con la punta de la lengua; barrer el paladar con la punta de la lengua; sacar la lengua y hacerla ancha y estrecha con la ayuda de los labios; realizar movimientos giratorios de la lengua interiormente.
- Actividades con la mejilla: hacer buches de aire y moverlos de un lado a otro; hacer buches apretando las mejillas para que salga el aire; morderse suavemente la parte interna de las mejillas.
- Actividades de mandíbula: abrir y cerrar la boca con distintos ritmos; apretar los dientes y aflojarlos; masticar; bostezar exageradamente; realizar movimientos laterales de la mandíbula inferior, llevándola sucesivamente de un lado a otro.

Como hemos dicho anteriormente estas actividades son para que el niño realice gimnasia lingüo-vocal y para que la realice por su cuenta cuando este en casa. Para que el niño pueda realizar actividades con una persona, por ejemplo con su madre o con su padre, se recomiendan actividades de habla dirigida. Mediante el uso de láminas, dibujos o fotografías de objetos, personas, animales se pueden realizar preguntas para que el niño pueda contestar y así poder establecer una conversación. Es muy importante que el niño hable y que practique los diferentes sonidos.

Para que el niño pueda realizar actividades en grupo grande, por ejemplo cuando este con los amigos o en clase, se recomiendan éstas actividades:

- Se pueden utilizar comics o libros para hablar, entablando diálogos entre ellos.
- El juego del mini arco: El mini arco consta de un tablero con doce fichas y un libro de juegos donde hay una colección bastante amplia. Cada juego presenta doce preguntas, identificados con un número y con un dibujo. Primero se coge una ficha, por ejemplo la del número uno y con ella se mira en el libro la imagen con el número uno. Colocamos la ficha en el tablero sobre la casilla con el número de la respuesta. Y así seguimos colocando fichas hasta completar el tablero. Por

último, cerramos el tablero, le damos la vuelta y lo volvemos a abrir. Si nos sale la misma figura que aparece en el libro, es que lo hemos hecho bien pero si hay alguna ficha mal puesta, la quitamos, cerramos el tablero y le volvemos a dar la vuelta. Tratamos de colocar las fichas que acabamos de retirar en el sitio correcto.

Este juego lo podrán realizar entre unos cuantos y se tendrán que comunicar para ayudarse mutuamente.

- El juego del lince: Este juego consta de un tablero lleno de dibujos y fichas individuales con dibujos que aparecen en el tablero. Cada jugador tendrá unas fichas pero no las podrá ver. A una señal estipulada por todos los jugadores se les dará la vuelta a las fichas y cada miembro del juego tendrá que buscar las imágenes que le ha tocado en las fichas en el tablero redondo. Cuando encuentre la imagen en el tablero pondrá la ficha encima y gritará en alto el nombre del objeto. En el momento que algún jugador coloque todas sus fichas en el tablero se acabará la partida.

Todos los juegos que se realicen tienen que dar pie a hablar. El niño que tenga problemas en la pronunciación, a no ser que tenga algún defecto en algún órgano, los superará hablando y repitiendo una y otra vez las palabras y sonidos.

Conclusiones

Las conclusiones a las que he podido llegar son las siguientes:

- La mayoría de los niños presentan las mismas dificultades en lo que se refiere a la pronunciación. Los sonidos que más problemas dan son [s], [ʃ], [ç]. Los sonidos más desarrollados o los que mejor pronuncian son [tʃ], [s̺], [r], [ɲ].
- Son notables las diferencias que existen entre los más jóvenes y los más adultos de la clase. Los más mayores muestran un mayor grado de desarrollo lingüístico, mientras que en el caso de los más jóvenes dicho desarrollo es menor y se puede observar que todavía se están adecuando al idioma. En cuanto a las dificultades que muestran, por un lado, se destaca la influencia del castellano en el desarrollo del idioma y por otro lado, se observa, sobre todo entre los más jóvenes, que el desarrollo que tienen del idioma es escaso. Aún así, se puede ver el esfuerzo que hacen los niños por el desarrollo del idioma y está claro que necesitan tiempo para madurar tanto en el desarrollo personal como en el desarrollo del lenguaje.
- Se observa una mayor dificultad en los alumnos que tienen tendencia a hablar en castellano tanto en casa como en la calle, que en aquellos que hablan en vasco. Las dificultades en general son las mismas y todas proceden de las diferencias de algunas consonantes en castellano y en euskera.
- La pronunciación que muestra el adulto la ha adquirido en su infancia. Aprender otra lengua es una actividad compleja. Primordialmente, la lengua es un fenómeno oral, los participantes de este fenómeno precisan de la habilidad de codificar y decodificar los sonidos producidos por otros. En el caso del aprendizaje de otra lengua, no somos capaces de hacer este proceso a no ser que conozcamos el sistema fonológico.
- Los sonidos que son diferentes acústicamente los escuchamos de la misma manera, sin darnos cuenta de las diferencias que se dan. No solemos diferenciar los sonidos de una segunda lengua.
- El lenguaje como medio de comunicación humana juega un papel fundamental en la adquisición y desarrollo de los conocimientos y desempeña un papel principal en la formación de la personalidad.
- La mayoría de los niños provienen del castellano y deben de llegar al euskara. Por ello es imprescindible que tengan un buen modelo del idioma. El docente juega un papel

fundamental en este aprendizaje, ya que para muchos es el único modelo a seguir y es el primer interlocutor con el que el niño toma contacto fuera de casa. El docente, por un lado, tiene que tener un buen dominio de la lengua y por otro, una buena formación metodológica que le permita aportar respuestas apropiadas y científicas justificadas a las dificultades relacionadas con el aprendizaje de una segunda lengua. Los niños pasan la mayoría del tiempo en la escuela con la profesora y aprenden mediante la imitación. El entorno familiar juega también un papel importante en este aprendizaje. Hay factores individuales que afectan en el comportamiento comunicativo de los niños, como por ejemplo niños desatendidos o poco estimulados, falta de afecto, etc.

El nivel cultural y social juega también un papel importante, en cuanto a la manifestación de sus habilidades lingüísticas. El periodo de adaptación a esta nueva realidad que es el paso del hogar a la escuela, constituye uno de los momentos cruciales en el desarrollo cognitivo del niño y es necesario que los educadores y los padres les dediquen la máxima atención.

- Tendemos a buscar índices acústicos que existan en nuestra lengua y sin quererlo, no prestamos atención a distinciones que no forman parte de ella.

Ondorioak:

Proba pasatu eta gero, eta lortutako erantzunak ikusi ondoren, hainbat ondorio atera ditut:

- Gehienek hitzak ahoskatzeko garaian zailtasun berak dituzte. Nabarmenenak, [s], [ʃ], [ç] ahoskatzerakoan izan dira. Garatuak dituzten soinuak eta ondo ebakitzen dituztenak berriz, [tʃ], [ʃ], [r], [ŋ] dira.
- Gelako helduenen eta gazteenen arteko aldea nabaria da; izan ere, helduenek hizkuntza mailan garatuagoak daudela ikus daiteke eta gazteenak, berriz, oraindik hizkuntzara egokitzen ari direla. Helduenek ahoskeran erakusten dituzten zailtasunak gaztelaniaren eraginez gertatzen direnak dira. Gazteenen zailtasunen artean berriz, gaztelaniaren eraginaz gain hizkuntzaren garapen eskasa nabarmentzen da. Hala ere, saiatzen direla ikus daiteke eta hizkuntzaren ahoskerari dagozkion alderdien garapenean denbora behar dutela.

- Haurren gurasoak nahiz ingurua euskalduna edo erdalduna izateak, hizkuntzaren garapenaz ari garenean, badu garrantzia. Izan ere, erdaraz egiteko joera dutenen artean zailtasun gehiago dituztela ikus daiteke eta zailtasun hauek gainera, oro har berdinak dira.
- Hitzun helduak haurtzaroan bereganatutako hizkuntzaren ahoskera du. Beste hizkuntza bat ikastea zeregin konplexua da. Hizkuntza normalean ahoz ematen da eta hitzunek besteek ekoiztutako soinuak kodifikatzeko eta deskodetzeko abilezia dute. Beste hizkuntza baten ikasketan, ez gara prozesu hau egiteko gai, baldin eta sistema fonologikoa ezagutzen badugu.
- Akustikoki ezberdinak diren hotsak, hitzunik, berdin entzuteko joera dugu. Bigarren hizkuntza baten soinuak ez ditugu desberdintzen.
- Ezagutzen garapenean eta honen eskurapenean, komunikazioak, paper garrantzitsua jokatzen du. Nortasunaren osaketan ere garrantzi handia du.
- Haur gehienak gaztelaniatik heldu dira eta euskarara iritsi behar dira. Horregatik, eredu zuzena izan behar dute hizkuntza egoki bat lortu nahi badute eta hizkuntzaren garapena arrakastatsua izan dadin, hizkuntza horretan komunikatzea posible den ingurugiro batean egon behar dute. Honetan irakaslearen papera ezinbestekoa da, haur gehienek eredu bakarra baita. Haurrak eguneko ordu gehienak eskolan hezitzaile edo irakaslearekin egoten dira eta ikasteko baliabide bezala imitazioa erabiltzen dute. Irakasleak batetik hizkuntza ondo menperatu behar du, bestetik formazio metodologiko egokia izan behar du eta, azkenik, haurren ikaskuntzan sortutako zalantzei erantzuna emateko gai izan behar da. Haurrak eguneko ordu gehienak eskolan egoten dira irakaslearekin ikasteko baliabide bezala imitazioa erabiltzen dute. Haurren ikaskuntzan familiaren inguruneak garrantzi handi du. Haurren komunikazio portaeran kalte egiten duten alderdiak daude, adibidez arreta eskaintzen ez zaien haurrak, maitasun edo afektu gabeko umeak, etab.

Haurren hizkuntza-trebetasunean kulturak eta gizarteak garrantzi handia hartzen du. Etxean egotetik eskolara pasatzeak dakarren aldaketa haurren garapen kognitiborako oso gogorra da eta gurasoek eta irakasleek arreta guztia beraiengan ipintzea beharrezkoa da.

- Gure hizkuntzan aurkitzen diren alderdi akustikoak aurkitzen saiatzen gara eta ez dugu arretarik jartzen bertan parte hartzen ez duten bereizketetan.

Erreferentziak

Artetxe, M. (2009). *Xixilio Xelebrea*. Ibaizabal argitaletxea.

Artetxe, M. (2009). *Zorion Zoriontsua*. Ibaizabal argitaletxea.

Michelena, L. (1977). *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, bigarren argitaraldia.

Monfort, M. (1992). *El niño que habla*. Madril: Ciencias de la educación preescolar y especial.

Oñederra, M.; Olaizola, L. (2004). *Fonetika Fonologia Hitzez Hitz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Txillardegi (1980). *Euskal fonologia*. Donostia: Ediciones Vascas.

Eranskinak




Izurdetik izurdera!
Salto! Bota!
Eta segi aurrera!

17

7



Marrubitik marrubira eta
segi dadoak esandako tokira!



40

